

Kultura

Bidaia ardatz izango duen Hitzez eta Ahotsez irakurraldia antolatuko dute maiatzaren 5ean > 11



Zornotzan langile bat hil da, eta prekaritatea salatu dute

Astelehenean 48 urteko langile bat hil zen Zornotzan, igerilekuko aldagela batean garbiketa lanak egiten zebilela. Udalak azpikontrataturako enpresa baterako egiten zuen lan. Karbono monoxidoak eragindako intoxikazioaren ondorioz hil zen, Osalanen arabera. Hainbat sindikatu eta langile batzordek erantzukizunak eskatu dituzte asteen egindako kontzentrazioetan. > 3

“*Hasiberri naizen honetan ikusi dut Azoka baino gehiago dela Gerediaga*”



Arantza Atutxa | Gerediagako kudeatzailea > 10

Birziklapenerako ideia berria

Durango Kurutziaga ikastolako jantokiko hondar organikoak batuko ditu Iñigo Etxebarria nekazariak, bere ortuan ongari lez berrerabiltzeko. Proba pilotu honegaz, instituzioak inplikatu gura dituzte. > 2-3



IURRETA

Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ZIKLOAK

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta

Euskaraz ikasi eta lan egin!



Durangaldea > 5

M7rako, boto aurreratua emateko aukera dago

Durango > 6

Udalbatzarrak ez du onartu Garateri liberazioa kentzea

Zornotza > 4

Pregoia irakurrita abiatuko dute Jai Solidarioa, gaur arratsaldean

Abadiño > 8

Matienako jaiak martxan dira, DJ saioaren eztabaida tarteko

Herririk herri

Kurutziagatik baserri batera 100 kilo organiko eramango dute egunero, konposterako

Proba pilotua da IK4-Azterlanek gidatutakoa, etorkizunean finkatzeko asmoz

ERREPORTAJEA M. Onaindia
Esperientzia edo proba pilotu bat da soilik, baina ondo funtzionatuz gero, eragin handia eduki dezakeena eskualdeko hondakin organikoen birziklapenean. Kurutziaga ikastolako jantokitik baserri batera 100 kilo organiko inguru eramango dute egunero, bertan konposta egiteko erabilizko. Iñigo Etxebarria nekazari iurretarraren baserria da leku hori, eta Etxebarria berak egingo du bilketa. IK4-Azterlan zentroak gidatuko du esperientzia abendura arte, eta azken helburua etorkizunean finkatzea eta zabaltzea da, horretarako udala edota Amankomunazgoa inplikaturik. 700 ikasle dituen Kurutziagako jantokiak 100 kilo organiko sortzen baditu egunero,

Orain arte alferrik galtzen izan den materia bat, lurraren ongarri bihurtzeko birziklatuta

Atutxa: "Postrearen arabera, desberdina da batzen den organiko kopurua"

ikastetxe gehiagotara hedatuz gero batu ahal den kopurua itzela da. Orain arte alferrik galtzen izan den materia bat, lurraren ongarri bihurtzeko birziklatuta.

Etxebarria egunero egingo du bilketa. Jantokiaren kanpo aldean utziko dizkiote ontziak. Gaur-astelehena- adibidez, di-

listak eta kroketak jan dituzte ikasleek. Mikel Atutxa jantokitiko arduradunak azaldu du proba pilotuaren eraginez ez dutela kasik ezer aldatu euren eguneroko lanean; lehen errefusako kontainerrean botatzen zuten materia organikoa, eta orain, ate alboan uzten dute. Guztia birziklatzen dute, eta hori antolatzeke, lau laguneko taldeetan banatzen dituzte jardunak.

Menuaren arabera organiko kopurua aldatuko da. "Jogurta badago, guk birziklatzen dugu, beraz, postrearen arabera des-

berdina da batzen den organiko kopurua", esplikatu du Atutxak.

Etxebarria: "Zentzu horretan ere, autonomoak izatea lorgu gura dugu honegaz guztiagaz"

40-60 tona urtero
Ikastetxeetako jantokitako organikoa onuragarria izango litzateke eskualdeko baserrie-

tan, eta ideia horregatik hasi da parte hartzen proiektuan Etxebarria. "Urtero, 40-60 tona sats ekartzen dugu ortura", esan du materia organiko eta mineralen premia erakusteko. "Zentzu horretan ere, autonomoak izatea lortu gura dugu honegaz guztia, behar dugun ongarri guztia geuk sortzea". Ortuaz aparte, oilaskoak eta txerriak era ekologikoan ekoizten ditu bere baserrian, eta organikoa txerriei jaten emateko ere erabili dezake.

Egitasmoa proba batetik harago badoa, bilketagaz diru sarrera bat ere lortuko lukete nekazariak. "Beste diru iturri bat etorriko balitz lana ordaintzearen, bada, oraindik eta hobeto", dio iurretarrak.

Gastua aztertzea

Abenduan proba amaitu eta gero, ekimenak zelako gastua eduki duen aztertuko dute, Ander Areitioaurtena IK4-Azterlane-



Kurutziagako organikoa batzeko erabiliko duten ontziak

Durangaldean 1.344 lagunek garatzen dute autokonpostajea

Kontainer marroira botata, 3.656 etxetan birziklatzen dute organikoa



Iurretako Goiuri eta Unai Sopelana dira autokonpostajearen dihardutenetako batzuk.

ERREPORTAJEA M.O.

Amankomunazgoak 2014an ipini zuen martxan materia organikoa batzeko sistema, bosgarren kontainerrearen eta aukonpostajearen bidez. Gaur egun, 1.344 lagun dira euren etxeetan konposta egiten dutenak, gero materia organiko hori lurraren ongarri lez erabilizko. Batez ere baserrietan edota lurren bat duten etxeetan garatzen dute autokonpostaje sistema hori.

Ikastetxeetan organikoa batzeko ideia berriagaz bezala, urterik urte hedatzen joan den kanpaina izan da Amankomunazgoak gidatu duena. Dagoeneko zortzi dira parte hartzen duten herriak, eskualdeko zabor bilketa sistema barruan daudenak hain zuzen: Abadiño, Atxondo, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar. Kontainer marroira dagokionez, guztira, 3.656 etxetan birziklatzen dute organikoa. Hala ere, Amankomu-

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko apirilaren 28a
14. urtea - 674. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek udal hauen laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



zi bategaz, Atutxa, Areitioaurtena eta Etxebarria.

ko ikerlariak dioenez. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza dute. “Proiektu honegaz, gasolinan eta lan denboran zelako kostua daukan kalkulatu dugu batez ere”. Horrela, balizko zerbitzu finko bat zenbat kostatuko litzatekeen jakingo dute. Areitioaurtenaren us-

Areitioaurtena:
“Gasolinan eta lan denboran zelako kostua daukan kalkulatu dugu”

Areitioaurtena:
“Etxerik etxe barik, leku gutxitan kantiitate handia jasoko du nekazariak”

tez, ohiko enpresa bat baino merkeagoa izatea da aurreikuspena, gertutasunagatik. Garbikerrek errefusa tona 90 eurotan kobratzen dio udalari, eta horri bilketa eta garraio gastua gehitu behar zaio.

Areitioaurtenak argi du proiektua hondakin sortaile handiekin garatu behar dela, denbora eta gastuaren abantailagatik. “Nekazariak bere lana du, eta hau gehigarri bat litzateke. Eta etxerik etxe barik, leku gutxitan kantiitate handia jasoko du”.

IK4-Azterlanen aholkuak
Instituzioek zerbitzua mar txan jartzea erabakitzen badute, nekazarien elkarte bat sortu beharko da gestioa aurrera eramateko. IK4-Azterlanek ortuetan konpost guneak atontzeko aholku-gida bat landuko du, eta tramiteak egiteko beste gida bat ere bai. Gainera, udazkenean gaiagaz lotutako jardunaldiak antolatuko ditu, Areitioaurtenak aurreratu duenez.

Larrabetzun antzerako proiektu bat dago martxan, eta Usurbilen ere ezarri gura dute. Hurrengo geltokia Durangaldea izan daiteke.

Prekarietatea salatu dute behargin bat hil eta gero, Zornotzan

Igerilekuetan garbiketaren lanetan zebilela hil da



Eguaztenean kontzentrazioa egin zuten udaletxe aurrean.

ZORNOTZA Joseba Derteano Astelehenean behargin bat hil zen Zornotzan, Jauregizahar inguruan dauden igerilekuetan garbiketaren lanetan zebilela. Udalak azpikontratatuak Impacto enpresarentzat lan egiten zuten. Jazoera berean obra eta zerbitzuetako udal brigadako langile bat ere ospitalizatu behar izan zuten.

Osalanen aurretostenaren arabera, 48 urteko langile zornotzarra garbiketaren lanetan zebilela igerilekuko aldagela batean. Presiozko makina batez lan egiten du. Horrela, aurretostenaren arabera, “karbono monoxido bidezko intoxikazioak” eragin du heriotza.

Ezbehar horien ostean, udaleko eta enpresako langile batzordeek lanuzteetara deitu zuten. Eguaztenean, batzorde biek deituta, sindikatuetako ordezkariak eta udaleko hainbat zinegotzi ere batu zituen kontzentrazioa egin zuten. 150 bat lagun batu ziren.

Prekarietatea salatu zuten eragile denek, eta Osalari eta Lan Ikuskaritzari ikerketa zehaztasunez eramateko eskatu zieten. Erantzuleek hartu behar dituzten ardurak hartu ditzatela ere eskatu zuten.

Horrez gainera, Udaleko langileen batzordeak kontratazio zuzenak eskatu zituen. “Kontratazioen municipalizazioa aztertu behar da, kalitatezko lana sortze aldera”. LABeko Eulate Zilonizaurrekoetxearen ustez ere “kontratazio zuzena da prekarietateari amaiera emateko moduetako bat”. ELAko Josu Otzerin jauregik prebentzio neurriak betetzeko eskatu zien enpresei, eta neurri horiek bete egiten direla segurtatzeko udalei.

Jazoera berean obra eta zerbitzuetako udal brigadako langile bat ere ospitalizatu zuten

Zornotzako Udalak “nahigabea” agertu du gertatutakoagatik, eta doluminak helarazi dizkie zendutako langilearen senideei, ohar batean jakinarazi dutenez.

Lan istripua Abadiñon
Abadiñoko Segurinox enpresan ere beste lan istripu bat jazo zen astelehenean. Behargin bat altuera handiko makina batek jausi zen, eta helikopteroan eramane zuten.

| HONDAKIN MOTA | 2016an JASOTAKOA (KILOTAN) | EHUNEKOA |
|-------------------------|----------------------------|----------------|
| ERREFUSA | 7.047.500 | %75,02 |
| PAPERA ETA KARTOIA | 999.642 | %10,64 |
| BEIRA | 585.914 | %6,24 |
| ONTZI ARINAK | 432.261 | %4,60 |
| BOLUMEN HANDIKOAK | 156.800 | %1,67 |
| PILAK | 1.489 | %0,02 |
| BERRERABILGARRIAK | 71.366 | %0,76 |
| ORGANIKOA | 99.060 | %1,05 |
| GUZTIRA | 9.394.032 | %100,00 |
| BIRZIKLAPEN TASA | | %24,98 |

nazgoaren ustez, beharrezkoa da parte-hartzaileen kopurua handitzea. Izan ere, organiko oraindik %1,05 da, soilik, baten den hondakinen artean. Ekimenean parte hartu gura dutenek, 94 623 25 22 telefonoan eman ahal dute izena.

Durango aparta gestioatzen du zabor bilketa sistema, eta aurten hasi gura du organiko batzen. Zornotzan, Mallabian eta Otxandion hasita daude. Berriz ere organiko etxerik etxe zein ontzietan baztertzeko proiektua du 2012tik.

Aurrematrikula maiatzaren 2tik 12ra

Olaburu 3 - IURRETA
Tel.: 94 681 04 61
www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D eremuan

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Guraso, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.



Jai solidarioagaz beharriana dutenei lagunduko diete

Gaur hasiko dute jaiak, pregoia irakurrita

ZORNOTZA J.Derteano
Barikuan hasi eta domekara bitartean, jaialdi solidarioa izango dute Zornotzan. Askotariko ekintzak prestatu dituzte Luxury tabernaren ekimenez eta hainbat elkarteren laguntzagaz. Elikagai iraunkorrek batzea da helburua. Ondoren, batutako janaria Durangaldeko Gurutze Gorriari emango diote, beharriana duten herritarren artean banatu dezan.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, herriko Eroski supermerkatu bietan zein Luxury ta-

bernan gune bi jarri dituzte, eta gura duenak hantxe utzi dezake janaria. Jai gunean bertan ere batuko dute.

Hiru egunean adin guztiei begirako ekintzak prestatu dituzte. Gaur, 18:00etan, jaiak hasiera emango dien pregoia irakurriko dute. Ondoren, kalejiran abiatuko dira buruhandiekin jai-giroa herri osora zabalduz. 19:00etan *Txispi-txaspa Jolas-Kanta* deitzen den umeentzako ikuskizuna hasiko da. Diversions taldearen kontzertuak emango dio amaiera lehenengo egunari



Adin guztiei zuzenduriko egitaraua osatu dute barikutik domekara.

20:30ean hasiko den musika kontzertuan.

Zapatu goiza gaztetxoei begirakoa izango da. Lehenengo, 11:30ean, herri lasterketa batean parte hartzeko aukera izango dute, eta ostean askotariko herri kiroletan arituko dira.

Arratsaldean, 17:00etan, Gurutze Gorriak erakustaldi bat eskainiko du, eta ostean arte martzialen erakustaldi bat hasiko da. Umeentzako puzgarri eta tailerrik ere ez da faltako arratsalde osoan. Eguna musikagaz agurtuko dute. Dirty Road Band

taldearen kontzertua 20:00etan hasiko da. Domekan, jai solidarioaren azken egunean, merkatu txikia izango da ekintza nagusia. 10:00etatik 15:00 bitartean herriko denden postuek askotariko produktuekin hartuko dute plaza.

Jai laburragoak eta erdigunean proposatu ditu EH Bilduk

Gaur egungo eredia “agortuta” dagoela uste dute



Zornotzako jaien hasierako irudia.

ZORNOTZA J.D.
Gaur egungo jai eredia “iraungita” dagoela uste du Zornotzako EH Bilduk, eta badela garaia eztabaida ireki bat abiatu eta eredu hori berregituratzeko. Horregatik, proposamen zehatzak jasotzen dituen txosten bat landu eta herritarren eskura jarri dute, iritziak jasotzeko. Proposamen irekia dela nabarmendu dute.

Guneei dagokienez, “derri-gorra da herriko erdigunea bizi eta alai sentitzea”, jasotzen du dokumentuak. Hori kontuan hartuta, hiru gune nagusi proposatzen dituzte: Zelaieta parkea, Zubiondo plaza eta Herriko plaza. Txosnak Zelaietan eta Zubiondon egongo lirakeke.

Gudari kalea ixtea proposatzen dute, segurtasunagatik.

Egutegiari dagokionez, “jaiak laburtzearen aldekoak” dira. Egutegiak eskaintzen dituen aukerak ikusita, bost alternatiba aurkeztu dituzte.

Egitaraua eta ekintza konkretuak dira txosnetako beste atal bat. Danborrada “goi mailako ekintza soziala” bihurtzea proposatu dute, adibidez, helduena eta txikiena egun berera —ordutegi desberdinekin— ekarrita. Santanatu egunak izan duen espiritua berriro indartzea da beste ideia bat “egun erosoago batean kokatuz”.

Proposamen osoa EH Bilduren blogean (*ehbilduzornotza.eus*) irakurri daiteke.

Hontzak eta EITBk akordioa sinatu dute

Hiru3 klubekoen artean sarrerak zozkatuko dituzte

MAÑARIA J.Derteano
Hontza Museoak kolaborazio hitzarmena sinatu du EITBgaz. Horrela, EITBk 14 urte arteko ume eta gaztetxoentzat duen Hiru3 klubean, bertako bazkideek dituzten abantailen artean, apiriletik aurrera Hontza Museora joateko lau sarrera izango dituzte doan. Museoak antolatuko dituen askotariko tailerretan parte hartzeko aukera ere izango dute irabazleek. Horrela gazteengana heltzea du helburu museoak.

Hitzarmena sinatu zutenetik hainbat bazkidek bisitatu dute Mañariko Hontza Museoa, eta Hontzako arduradunen esanetan, “benetan esperientzia polita izan dela ziurtatu dute etorri direnek”.

Dagoeneko hainbat bazkidek bisitatu dute museoa zotz egindako sarreraren bidez

Areition jaiak ospatuko dituzte astelehenean

MALLABIA J.D.
Berano Txiki auzoko jaiak amaitu ostean, Areitio auzoko txanda da. Maiatzaren 1eko astelehenean Marixelen jaiak ospatuko dituzte auzotarrek. Lehenengo, ohiturari eutsiz, meza egongo da hango ermitan. 12:00etan hasiko da, bertaratu gura duten denetat. Mezaren ondoren, 13:00etan, herriko dantza taldeak saioa eskainiko du. Dantzarien jardunagaz eta auzotarrek sortutako jai-giroagaz eguerdira arte iraungo du ospakizunak.

Zabalik dago herriko udalekuetako izen-ematea

Maiatzaren 5era arte dago zabalik izen-ematea

ELORRIO M.Zuazubiskar
Uztailean egiten diren herri udalekuetako izen-ematea zabaldu du Elorrioko Udalak. Maiatzaren 5era arte egongo da aukera 3 eta 12 urte bitarteko haurren izen-ematea egiteko, udal txerriaren Arretarako Zerbitzuan.

Udalak jakitera eman duenez, udalekuetako datoren eta adinaren arabera prezio ezberdinak jarri dituzte. 3 eta 8 urte bitarteko haurrek 75 euro

ordainduko dituzte hamabostaldiarengatik, eta 100 euro hilabeteagatik. 9 eta 12 urte bitarteko gazteek, berriz, hamabostaldiarengatik 110 euro ordainduko dituzte, eta hilabeteagatik 160 euro.

Gainera, aurtun herri udalekuek parte hartzen duten 9 eta 12 urte bitarteko gazteek zaldian ibiltzeko saioak izango dituztela jakitera eman du udalak. Astearen behin joango dira zalditegira.

Axpeko udaletxe zaharra barrutik berritzen ari dira

ATXONDO M.Z.
Azken urte hauetan Axpeko udaletxe zaharra konpontzen dabil Atxondoko Udala. Duela urte batzuk teilatua konpondu ostean, egun barrutik eraberritzen dabilta. Aurtengo udal aurrekontuetan Axpen dagoen eraikinera 10.000 euro bideratzea erabaki zuen gobernu taldeak. Diru horregaz, eta iaz bideratutako 15.000 euroekin lehen solairua konpontzen dabilta. Esaterako, hormak, sabaia eta lurra berritzen dabilta orain.

Boto aurreratuaren aukera eman dute M7ko kontsulta aurretik

Botoa emateko mahaiak ipintzen hasi dira

DURANGALDEA M. Onaindia Hilabeteetako lan eta zabalpenaren ostean, kontsultarako eguna gertu dauka Gure Esku Dagok. Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren emango diete hitza herritarrei, hurrengo domekan, maiatzaren 7an. Baina, gainera, herri-galdeketen bezperatan boto aurreratua emateko aukera eskaini dute, egunean bertan herrian egon ezin direnentzat. Herri batzuetan hasi dira dagoeneko mahaiak ipintzen eta egoitzak zabaltzen, eta beste batzuetan datorren astean zehar ipini dituzte zitak.

Durangon, Zornotzan, Elorrion, Abadiñon eta Zaldibarren emango diete hitza herritarrei

Erabakitze eskubidearen aldeko dinamikako kideak prestaketetan dabilza

Kontsultarako astebete bakarrik falta da, eta erabakitze eskubidearen aldeko dinamikako kideak egunaren prestaketak egiten dabilza. Hilaren 7an, hainbat mahai ipiniko dituzte botoa eman ahal izateko. Durangoko kasuan, Ezkurdin, Herria auzo elkartean, Tabiran, Ibaizabal auzunean eta San Fauston egongo dira hautestontziak, bizilagun guztiek ahalik eta gertuen eduki ditzaten. Zornotzan

ere Boroa, Larrea, Etxano eta Euba auzoetan bozkatu ahalko da, goizez bakarrik; Zelaieta parkean egun osoz egongo dira antolatzaileak.

Abadiñon Traña eta Txanporta plazetan jarriko dituzte bozkalekuak, eta Elorrion zein Zaldibarren udaletxe plazetan.

Babes keinuak

Bestalde, herri galdeketek hainbat pertsona eta elkarteren babes jasotzen dihardute. Abadiñon, adibidez, zenbait politikariren eta elkarteren atxikimendua jaso dute. Elorrion, bestalde, kirol eguna ospatu zuten joan zen domekan.

AURRETIAZ BOTOA NON EMAN

DURANGO Maiatzaren 5era arte, Artekaleko egoitzan. Asteazken zehar 18:00etatik 20:30era, eta zapatuetan 11:00etatik 14:00etara.

ZORNOTZA Maiatzaren 4an, 16:30etik 21:00etara. Luis Urrongoetxeako lokalean.

ELORRIO Maiatzaren 5era arte, Berrio-Otxoa kaleko egoitzan. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Maiatzaren 5ean goizez.

ABADIÑO Maiatzaren 2, 3, 4 eta 5ean. 18:00etatik 20:00etara, Trañaetxosteko lokalean.

ZALDIBAR Gaur, hilak 28, 19:00etatik 20:30era, udaletxeko plazan.



Abadiñon, politikari ugari eman diote babes galdeketeri.



Elorrioko kirol egunean, futbolariak kontsultaren alde.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

Jon Arrizabalaga

Gernika, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · APIRILAK 29
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 4
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MAIATZAK 20*
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

*Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO · APIRILAK 29
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · MAIATZAK 18*
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MAIATZAK 25*
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

*Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MAIATZAK 6
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA · MAIATZAK 6
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 13
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436



Elorrion, adibidez, hasiak dira botoak jasotzen.

Garatek ez du dimititu, eta udalbatzarrak ez du onartu berari liberazioa kentzea

Sexu abusuengatik salatutako zinegotziari liberazioa kentzearen aurka bozkatu dute EAJk eta PSE-EEK



Garateren dimisioaren aldeko kartelak erakutsi zituzten herritar batzuek, osoko bilkura aretoan.

DURANGO Markel Onaindia
Sexu abusuengatik salatutako Garate zinegotziari dimititzeko eskaria egin zion udalbatzak martxoko osoko bilkuran, baina zinegotziak ez du kasurik egin. Horregatik, liberazioa kentzeko proposamena aurkeztu zuen martitzenean EH Bilduk. Baina ez zen aurrera atera, Herriaren Eskubideak babestu baitzuen soilik; EAJk eta PSE-EEK aurka bozkatu zuten. Giroak bero jarraitzen du; hainbat herritar bilkurara joan ziren berriro protesta egitera, eta alkateak 15 minutuz eten zuen batzarra, sortutako zarategatik.

Dani Maeztoren ustez, Garatek udalean jarraitzea “ez da zero tolerantzia”. Ohartarazi zuen udalak indarkeria matxistaz egiten dituen adierazpenak “antzuak” izango direla PPkoak udalean jarraitzen duen bitartean. Aurrerantzean, koalizioak ez du kontuan hartuko zinegotzi lez. “Guretzat, hemendik aurrera 20 zinegotzi [21 dira berrez] gaude udalean”, esan zuen Maeztuk.

Julia Pereraren ustez (HE), auzia argitu bitartean Garatek atzera egin behar luke. Egin ezean, “udalak duintasunagatik ordezkatu behar” duela dio.

Ardura, PPrena dela
EAJk ez zuen berba hartu bo-toa arrazoitzeko. Pilar Riosen (PSE-EE) iritziz, PP alderdiak

Hainbat herritar bilkurara joan ziren berriro protesta egitera, eta alkateak 15 minutuz eten zuen batzarra

dauka egoeraren erantzukizuna. Oposizioaren kritiketatik defendatzeko, adierazi zuen udalak gaia salatu zuela bere momentuan, eta protokoloa ere

aktibatu zuela. Gainera, teknikoki liberazioa kentzea “ez da posible”, bere arabera. Maezturen ustez, “udal teknikarien atzean ezkutatzea ez da zilegi”.

Garatek berriro ere ukatu egin zuen akusazioa. EH Bildu kritikatu zuen bere aurkako mozioak aurkeztearren, eta alkatea ere bai, aurreko osoko bilkurako zalapartaren gestio-gatik.

Auzia artxibatu eta gero, emakumearen errekurtsioaz erabakia hartzeko dute epai-leek. Bitartean, Plataforma Feministak dimisioa eskatzeko sinadura bilketagaz jarraitzen du.

PSE-EEK ere babestu du preso gaixoen aldeko mozioa

DURANGO M.O.

Oier Gomez preso gasteiztarri sei hileko bizi itxaropena eman diote, minbiziagatik. EH Bilduk bere askatasuna exijitzeko mozioa eraman zuen bilkurara, eta gai honetan nobedade lez PSE-EEK ere babestu egin zuen, Herriaren Eskubideagaz batera.

EAJk aurka bozkatu zuen, PPGaz batera. Jeltzaleak “edukiagaz guztiz ados” daude, baina ez mozioa herririk herri eztabaidatzeagaz.

Errefuxiatuen aldeko martxa 08:00etan irtengo da, bihar

DURANGO M.O.

Errefuxiatuen alde Gernikarako martxa antolatu du bihar-ko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak. Euskal Herriko herri ugaritatik joango dira oinez, bizikletan edota garraio publikoan. Durangotik oinez joateko hitzordua ipini dute; 08:00etan izango da, Andra Marian. 11:30ean Zornotzan izango dute elkargunea, bertakoe-kin eta beste herrietakoekin. Gernikara arratsalderako helduko dira. Bestalde, Elorriotik autobusa irtengo da, 15:00etan, aparkalekutik.

Andaluziako Feriak kolorea eta jaia ekarriko ditu Landako Gunera

Kulturartekotasuna sustatuko dute maiatzaren 5etik 7ra bitarteko feriaz

DURANGO M.O.

Euskaldunen eta andaluziarren arteko topikoez harago, badago sustraitutako komunitate bat eguneroko lanagaz kulturartekotasuna sustatzen duena. Durangoko Andaluziarren Zentroak urteak daramatza ekin-tzak antolatzen, eta horien artean dago maiatzaren 5etik 7ra bitartean garatuko den Andaluziako Feria. Kolorez eta jai-giroz beteko dute Landako Gunera.

Cristina Luengo andaluziarren zentroko presidentek eman zuen egitarauaren berri

atzoko aurkezpenean. Hilaren 5ean, 19:00etan, zabalduko dituzte ateak, eta Kriskitinegaz

Inaugurazioaren ostean, Vamo A Ecuchá taldearen kontzertuagaz hasiko dute jaia

batera egingo duten inaugurazioaren ostean, Vamo A Ecuchá taldearen kontzertuagaz hasiko dute jaia. Zapatuan, 12:30ean,

Durangoko ume dantzarien taldeek ikuskizuna eskainiko dute. 17:00etan, jantzien desfilea, kulturarteko dantzen jaialdia eta sevillana lehiaketa egingo dituzte. Domekan, 12:30ean, andaluziarren zentroko taldeen emanaldian 40 bat lagun igoko dira taulara.

Zentroak urte osoan egiten duen lana nabarmendu du Aitziber Irigorasek, “durangarrek durangarrentzat” egindakoa. Pilar Ríos alkateordearen esanetan, “udalarentzat ohorea da feriaren kolaboratzaile izatea”.



Erdian, Cristina Luengo andaluziarren zentroko presidentea.

Gazteentzako alokairu sozialerako plan bat sortzea onartu du udalak

Udalaren eta bankuen etxe hutsak alokairu sozialera bideratzea adostu dute udalbatzarrean

DURANGO Markel Onaindia Durangon ia 1.500 etxe hutsik dauden bitartean, hainbat gaztek emantzipatzeko laguntza eskatu dute. Bada, gazteentzako alokairu sozialerako plan bat sortzea onartu du udalak, Zabalduko Ditugu mugimenduak aurkeztutako mozioa babestuta. Alderdi guztiek alde bozkatu zuten osoko bilkuran, PPK izan ezik.

Gazteek hiru proposamen nagusi egin dituzte: udalaren etxe hutsak alokairu sozialera bideratzea, bankuen etxe hutsekin programa bat sortzea eta

udala bitartekari izatea gazteen eta etxejabe diren herritarren artean. Horrez gainera, alokairu sozialerako baldintza batzuk proposatu dituzte; besteak beste, gehienez 125 euroko alokairua ordaintzea eta lan kontraturik beharrezko ez izatea. Eurena, "sektore bereziki prekarizatua" dela diote.

Baldintza horiek guztiz ez dituztela onartzen ohartarazi zuen Pilar Ríos alkateordeak (PSE-EE) gobernuaren izenean, baina aurrera begira lanean jarraitzeko asmoetatik babestu



Zabalduko Ditugu dinamikako gazteentzako batzuek berba hartu zuten osoko bilkuran.

dutela mozioa. Bestalde, BBK-gaz hitzarmen baterako tratuan daudela aurreratu zuen, baina oraindik ez dagoela ezer lotuta. Udalak etxejabe eta eskatzaileen arteko bitartekaritza programa bat hasi zuen iaz, baina ez zen

ondo atera; soilik etxe bi sartu ziren, Jon Bingen Landabidearen (EH Bildu) esanetan.

7 etxe Faustegoienan

Orain, onartutako planaz gainera, Faustegoienako zazpi etxe 18

eta 35 urte artekoentzat alokairu sozialean ipiniko ditu instituzioak. Zabalduko Dituguko ki-deek ekimen horren araudian parte hartzea eskatu dute, argitu arren ez dela nahikoa gazteriarren beharrezko asetzeko.

Uztaileko udalekuetarako izen-ematea

ZALDIBAR I. Esteban Uztailearen 10etik 21era antolatutuen udalekuetan izena emateko aukera zabaldu du Zaldibarko Udalak. 2005 eta 2013 urteen artean jaiotako gaztetxoei zuzenduriko udalekuak izango dira, eta datoren martitzenetik maiatzaren 10era arte eman ahalko da izena. Udal bulegoetan 10:00etatik 13:00etara eman daiteke izena. Izena ematera joan aurretik, dagokien ordainketa egin behar dute interesa dutenek (udalaren webgunean kontsultatu daiteke zein kontu zenbakitan). Ume bakoitzaren matrikulak 50 euroko prezioa dauka eta familia bereko bi edo hiru ume apuntatuz gero bakoitzak 25 euro ordaindu beharko ditu.

Agenda diseinatzeko lehiaketa, abian

BERRIZ M.Zuazubiskar Ohiturari eutsiz, Berrizko Institutuak eta udalak institutuko agenda diseinatzeko lehiaketa jarri dute martxan. DBHn matrikulatuta dauden 12 eta 17 urte bitarteko gazteek

12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat izango da institutuko agenda diseinatzeko lehiaketa

maiatzaren 5era arte izango dute aukera agendako azala eta kontrazala udaletxean aurkezteko. Hiru sari izango dituen lehiaketako irabazleen berri ekainean emango dute.

Segurtasuna eta osasuna hizpide Smurfit Kappa Nervión enpresan

Lan taldeari zuzendutako hainbat ponentzia eta jarduera antolatu dituzte

IURRETA Aitziber Basauri Segurtasunaren eta Osasunaren 5. Astea antolatu du Smurfit Kappa Nervión enpresak asteen, eta lan taldeari zuzendutako hainbat ponentzia eta jarduera izan dituzte. Bertan, Antonio Casimiro Almeriako Unibertsitateko irakasleak aktibazioaren eta osasunaren inguruko berbaldia eman zuen eta Vicente Fernandez Sasoiako arduradunak burmuinaren eta drogen kontsumoaren lotura aztertu zuen.

'Komunikatu eta seguru izan' lemapean antolatu dute, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Egunaren harira, eta osasun eta segurtasun ar-

loan "jokabide eta jardunbide egokiak sustatzeko ideia eta tresnak ematea" dute helburu.

Rafael Sarrionandia enpresako zuzendari orokorrak zabaldu zuten jardunaldia, astelehenean.

Besteak beste, Iurretako, Zornotzako eta Durangoko udal ordezkariak, Osalaneko zuzendaria eta Industria eta Ingurumen sailtako ordezkariak egon ziren bertan.



Smurfit Kappa Nervion enpresak Iurretan duen lantokiaren irudi bat.

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

hitz

#gomendioak

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT
OSPA
Juan Luis Zabala (2017)

UME ETA GAZTEENTZAT
ASTERIX ETA PERTZA
Goscini & Uderzo (2017)

MUSIKA
PEPE YANCIREN OMENEZ
Laja eta Landakanda (2016)

Rothenberger-eko langileak hitzarmena aldarrikatzen

Asteon egunero atera dira enpresa aurrean kontzentrazioa egitera



Martxoetik, astean birritan egin dituzte mobilizazioak, enpresaren Abadiñoeko egoitzaren aurrean.

ABADIÑO Itsaso Esteban *Hitzarmen duin baten defentsan, Rothenberger enpresako langileak borrokan* lemagaz kontzentrazioak egin dituzte, aste osoan zehar, enpresa multinazional horrek Abadiñoeko Astola auzoan daukan egoitzaren aurrean. LAB, CCOO eta ELA sindikatuko ordezkariak osaturiko enpresa batzordeak deitu ditu mobilizazioetara.

Sindikatuetakordezkariak azaldu dutenez, 2013. urtetik hitzarmenik barik daude enpresa horretan. Langileek kritikatu dute enpresak ez duela erakutsi negoziatzeko ezelako boronda-

terik, eta jarrera horri erantzuteko, astelehen eta eguaztenero kontzentrazioak egiten hasi ziren martxoan. Asteon, bazkailordu guztietan atera dira enpresaren aurrera.

“Enpresaren egoera ekonomiko kaskarra aitzakiatzat ipinita, soldatetan %5eko jaitziera eta 105 lanorduko igoera aplikatu ziguten 2013an”, azaldu du Jose Luis Gomez enpresa batzordeko ordezkariak, “baina balantze ekonomikoetan ikusi dugunaren arabera, 2014an eta 2015ean irabaziak izan dira”.

Bestalde, enpresak langileen erretirorako eskubidea gauza-

tzeko baldintzak ere ez dituela bermatzen salatu dute sindikatuetakordezkariak. Hain zuzen, Rothenberger enpresako langileen ia erdia dago erretiroa hartzeko adinean. Abadiñon, Gasteizen eta Madrilan dituzten lantokietan, 194 langilek dihardute lanean enpresa horretan.

Asteon multinazionalaren arduradunekin bildu dira langileen ordezkariak. “Enpresak langileen eskubideak murrizten eta produktibitatea langileen osasunaren gainetik jartzten jarraitzen duen bitartean, mobilizatzen jarraituko dugu”, esan du Gomezek.

Adineko pertsonen herri lagunkoien sareagaz bat

ABADIÑO I.E.

San Trokaz eta San Prudentzio nagusien elkarteek adineko pertsonen herri lagunkoien sareagaz bat egiteko proposamena eraman zuten martitzeneko osoko bilkura. Dublingo deklarazioa aurkeztu zuten udalbatzarrean, eta aho batez onartu zuten Abadiñoeko Independentiak, EH Bildu eta EAJ alderdiek. Abadiño zahartzaro aktiboa bultzatzen duen udalerrri integratzaile eta irisgarria izateko pausoak emateko konpromisoa hartu du, beraz, udalak.

Adineko pertsonen osasunean eta ongizatean eragina daukaten faktore sozioekonomikoak zein ingurumenekoak hobetzea da herriko nagusien elkarte biek martxan ipini duten Abadiño Lagunkoia izeneko ekimenaren helburua. Nagusien bizi-kalitatean eta osasunean eragina duten zortzi arlo landu gura dituzte proiektu horren barruan, herritar guztien parte-hartze zuzenagaz. Pertsona nagusien eskubide, beharrian eta ahalmenez kontzientziatu gura dituzte abadiñarrak.

Udalean ordezkariak izaten hiru alderdiek positibotzat eta aberasgarritzat jo zuten San Trokaz eta San Prudentzio nagusien elkarten ekimena.

N-636an kamioiak debekatzeko eskatu du udalak

ABADIÑO I.E.

Astola auzotik hasi eta Atxondoko mugaraino N-636 errepide zati kamioien zirkulazioa debekatzeko eskatu dio Abadiñoeko Udalak Bizkaiko Aldundiari. Horrela, abadiñarren bizi-kalitatea hobetuko litzatekeela azpimarratu du gobernu taldeak. Gerediaga-Elorrio autobidea da kamioiak debekatzeko aukera onena, udalaren ustez. “Durangaldeko hainbat herritako kale artetik kamioi astunak ateratzea izan zen autobide berriaren helburuetako bat, eta asmo hori beteko da kamioiei Zelaieta N-636 errepidetik zeharkatzea debekatzen baizaie”, alkatearen berbetan.

Bestalde, udal gobernu taldeak jakitera eman duenez, eta udalak hala eskatu arren, Bizkaiko Aldundiak “momentuz” ez dio N-636 errepidearen Zelaietako tartearen titulatasuna udalari emango. Gobernu taldearen arabera, “aurrekontuak ahalbideratzen dienez” utziko dio Aldundiak errepide zati hori udalari. Gauzak horrela, Iturritxo kaltetik N-636 errepideraino bide berri bat atontzeko baimena eskatu dio Abadiñoeko Udalak Aldundiari, “Zelaietako trafikoa berrantolatatu eta hainbat kale oinezkoentzat atontzeko”.

Durangaldea Murriztearen Ardurakomunitatearen
Mancomunidad de la Hermandad de Durango

Durangaldeko Behargintza
Durango, 6

Bizkaia
Euzkoakomunitateko diputazioaren herria

LANGABEENTZAKO DOAKO IKASTAROA

ENPLEGUA BILATZEKO EZINBESTEKO ESTRATEGIAK

NORENTZAT • 31 urte baino gehiago duten langabeentzat.

DATA • 2017/05/22 - 2017/06/09

ORDUTEGIA • 09:00 - 13:30

TOKIA • DURANGALDEKO BEHARGINTZA

IZENA • 2017/05/12 EMATEKO EPEA

DURANGALDEKO BEHARGINTZAN
EKINTZA HAU BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILAK FINANTZATU DU

Durangaldeko Behargintza Laubideta, 6 DURANGO Tel.: 946 232 522
Orduetgia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.mdurango.org

Danny Meip DJaren saioagatik eztabaida sortu da jaien atarian

DJaren saioa bertan behera uzteko eskatu dio Txosna Batzordeak udalari

ABADIÑO M.Z./I.E.

Danny Meip DJaren emanaldiaren harira eztabaida sortu da, astean, Traña-Matienako jaien atarian. San Prudentzio jailetako bigarren astebururako iragarritako dagoen DJaren saioa bertan behera uzteko eskatu dio Txosna Batzordeak Abadiñoeko Udalari. Txosna Batzordeak azaldu duenez, Danny Meip “jarrera arrazista eta sexistak” izateagatik salatua izan den Bilboko Back&Stage diskotekako musika-jartzaileetarikoa da.

Txosna Batzordeari erantzunez, Inma Zapardiez jai batzordeko buruak adierazi duenez, “ez da inor bere lantokiarengatik epaitu behar”. Jai batzordeak hartutako erabakia-

ri eutsiko dio, beraz DJa maiztaren 5ean arituko da Traña plazan. Zapardiezek dioenez, polemikaren aurretik abesti sexistak ez jartzea adostuta zuen DJagaz.

Atzo iluntzean ipini zuten Traña-Matienako San Pruden-

tzio jaiak iragartzen dituen Donien Atxa, eta San Prudentzio eguna ospatuko dute gaur. Iluntzean, txosnagunea izango da jaiaren gunea nagusia, eta handik botako du Abadiñoeko Gure Esku Dago elkarteak txupinazoa.



lazko jaien hasieran egindako argazkia.

Garaiko Landare Azoka jendetsuan, ekoizleak gustura salmentekin

Aurtengo nobedadea kontsigna izan da, eta ondo funtzionatu duela diote

GARAI Markel Onaindia Eguraldi ona eta jai-giroa lagun, Garaiko Landare eta Lorezaintza Azokaren bosgarren edizio jendetsua ospatu zuten joan zen

domekan. Gainera, landareak edota lanerako tresneria saltzen etorri ziren ekoizlerik gehienak gustura agertu ziren salmentekin, Gontzal Sarrigoitia alkatea-

ren arabera. Guztira, 22 postu ipini zituzten azokan.

Kontsignan, 70 lagun Aurtengo nobedadea kontsig-

narena izan da, eta ondo funtzionatu duela nabarmendu du alkateak. Azokara joandako bisitariek erosketak kontsignan uzteko aukera eduki zuten, egunpasa lasai egiteko, produktuak aldean ibili barik. 70 lagunek erabili zuten zerbitzu berria. Guztien artean bazkari baterako zozketa egin zuten antolatzaileek, eta Aurora Marina durangarra izan zen zorteduna.



22 postu ipini zituzten jendearen aukeran.



Loreak eta tresnak egon ziren ikusgai. Juan Mari Totorika

SEI HANKAKO MAHAIA

PILAR RIOS
PSE-EE



Alokairua sustatzeko

Alokairua sustatzen duten ekin-tzak lehenetsun osoa dira guretzat. Lehenengo eta behin esan behar dugu oso harro gaudela, udal-sustapeneko lehen etxebizitzak sozialisten akordio baten emaitza direlako. Lan asko egin behar izan dugu proiektua aurrera ateratzeko, baina eskuan ditugu dagoeneko. Sei etxebizitza dira, eta udal honetako gazteen alokairurako zuzenduta daude.

Gure ustez, funtsezkoa da kolektibo horri bultzada ematea, autonomia izateko emantzipazioarako bidean; alde batetik, urte urte lantzen dugun gazteen-tzako alokairuko diru-laguntzekin, eta, bestetik, Durango Alokairua programarekin, hutsik dauden etxebizitzak araututako prezioan merkatura ateratzeko ahalegina egiten, edota udal-sustapeneko lehen pisuak alokairurako bideratzen. Jakina, argi dago dena hobetu daitekeela, eta halaxe egingo dugu.

Bilerak egin ditugu dagoeneko, eta aurrerantzean ere gehiago egingo ditugu, elkartearekin batera sarbideko eta erabilerako baldintzak arautzeko ordenantza lantzeko, eta, horrez gain, gure udalerrian alokairua bultzatzea dezaketen bestelako ekin-tzak lantzeko. Lehen bilera oso aberasgarria izan da, eta egingo proposamenak aintzat hartu ditugu. Ahalegina egingo dugu udal honetako gazteekin eta alderdi politikoeekin ordenantza on bat izateko akordioa egiteko, eta legez kontuan hartzeko modukoak diren proposamen guztiak barnean hartzeko eta adosteko.

Horrez gain, kontaktuak egin hasi gara gure udalerririk eta BBK-k hitzarmen bat egin dezaten, eta hutsik dauden etxebizitzak laga diezazkiguten, gazteei zuzendutako udal-etxebizitzaren parkea zabaltzeko.

Jubilatu elkarteak Larrunera irteera antolatu du

IZURTZA J.D.

Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak egunpasa bat antolatu du ekainaren 17ko zapatarako. Larrunera (Lapurdi) joango dira, hango inguruak ezagutzera.

Izen-ematea hasita dago eta udal-letxean egin daiteke.

Larrunera igotzeko kremailera-trena hartzea izango da irteerako une berezietako bat. 1924an inauguratu zuten, eta denboraren joanak ez dio xarmarik kendu.

Eguerdian Beran bazkalduko dute, eta arratsaldean, Izurtzara itzuli aurretik, Getarian geldituko dira.

Igerilekuak hobekuntzekin irekiko ditu ateak

OTXANDIO J.D.

Igerilekuen udako denboraldia ekainean hasiko da, eta Otxandio azpiegiturak hainbat berrikuntzagaz irekiko dituzte aurten ateak. Aldageletan, du-

txetan eta beste hainbat tokitan konponketak egingo dituzte. Esaterako, igerilekura sartu aurretik gorputza bustitzeko gunea jarriko dute. Eusko Jaurlaritzak ezarritako arauetara moldatzea da lan batzuen helburua. Horrez gainera, iaz erabiltzaileen artean inkesta bat egin zuten, eta hortik irtendako proposamenak daude beste hobekuntza batzuen oinarrian.

DURANGALDEA ASTEON

Maiatzaren 1a ospatuko dute, egun osoko jaiagaz

DURANGO > Herria Auzo Elkarteak egun osoko jaiak antolatu du Maiatzaren 1aren harira. Astehenean, 11:00etan, bizikleta martxa egingo dute Iñaki 'Okly' gogoratzeko, 12:30ean Kriskitinek dantza saioa eskainiko du eta 17:00etan gaztetxoan danborrada hasiko da. Ekintza gehiago ere badaude egun osoan.

Arte Ederren Museora irteera antolatu dute

GARAI > Amankomunazgoak bisita kulturala antolatu du Bilboko Arte Ederren Museora, maiatzaren 4an. Pierre-Auguste Renoir margolari frantziarraren erakusketa bisitatuko dute. Autobusa 15:00etan irtengo da plazatik. Izen-ematea honako telefono honen bidez egin daiteke: 94 620 05 46.

Jaio gaztandegia saritu dute Madrilen

IURRETA > Jaio gaztandegiaren gazta ketuak urrezko domina lortu du bere kategorian Gourmet Quesos 2017 Txapelketan. Aurtengo irabazleen artean Idiazabal Jatorri Izendapeneko lau gaztandegi daude, eta horietako bat da Iurretakoa. Gorka Jaio artzain eta gaztagile iurretarrak darama gaztandegiaren ardura.

Zorionak eta eskerrik asko Durangaldeari!

Otxandion hasi eta Iruñean amaitu da 20. Korrika. Euskarak batzen gaituen ekimen erraldoi hau gauzatzeko, behar-beharrezkoa dugu denon partehartzea.

Batzuk antolaketan laguntzen, beste batzuk aportazio ekonomikoak egiten, hurrengokoak ekitaldietan parte hartzen, haragokoak bide bazterretan animatzen, ... Den-denok zarete garrantzitsu eta zeuoi guztioi esker egiten dugu aurrera.

Beraz, eskerrik asko Durangaldea, zuen laguntza barik ezin izango genuelako hain korrika mundiala egin.

Ane Abanzabalegi, Durangaldeko AEK

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Arantza Atutxa Lejarreta | Gerediaga elkarteko kudeatzaile berria | Dima, 1979

“Gerediagak duen ezagutza eta aberastasun guztia nola plazaratu landu gura nuke”

Otsailetik Gerediaga elkarteko kudeatzaile berria da Arantza Atutxa. “Ilusioagaz” hartu du ardura Bilbon bizi den dimoztarrak



> BERBAZ Aitziber Basauri
Gerediaga elkarteko kudeatzaile berria da Arantza Atutxa. Hasiberria da lan horretan, baina “ekiteko gogotsu” dago. Gorbeialde Lana Garapen elkartean eta sormen industriagaz lotutako Creativity Zentrum-en aritu izan da lanean, besteak beste.

Otsailean hartu zenuen kargua. Nola heldu diozu?
Ilusioagaz. Gerediagari buruz nuen informazioa Durangoko Azokari lotutakoa zen hasieran. Geroago jakin nuen beste hainbat gauza ere egiten dituela. Hasiberri naizen honetan ikusi dut Azoka baino gehiago dela Gerediaga, hainbat lan ildo dituela. Azoka den arren plazan ikusten den zeregin handiena, badiugu beste zeregin eta erronka batzuk. Ekiteko gogotsu nago. Hasierak beti dira ikusteko eta ikasteko, eta gogoz nago.

Zeintzuk ardura hartu dituzu?
Kudeatzaile lanean nabilenez,

lan administratiboa hartu dut neure gain; kudeaketa edo gestio ekonomikoa. Lan taldearen kudeaketa ere eramango dut.

Zeintzuk dira zure helburuak epe laburrera?

Lehenik eta behin, denbora bat izan gura nuke elkartearen erritmoa, bazkideak, inguruan dauden kide eta laguntzaileak... ondo ezagutzeko. Urte hau erabili gura nuke horretarako, gero proposamenak egin ahal izateko. Gerediagak Durangaldearekiko sentsibilizazio oso sendoa duela uste dut, eta eskualdea eta horren kultur aberastasuna erakusteko zubi lan horretan jardun behar dugu: Azokaz haratago, Gerediagak duen ezagutza eta aberastasun guztia, eta urteetako ikerketa lanaren emaitza nola plazaratu eta nola ezagutzera eman landu gura nuke. Elkarteak bazkideekin duen harremana ere sendotu gura nuke. Dena den, galdetzeko, ikusteko eta ikasteko asko dut aurretik.

Baduzu etorkizunera begirako erronkarik?

Gerediagako kudeatzaile izan den Aitziber Atorrasagastik zuzendaritza kargu bat hartu du Jaurlaritzan, eta bere eszedentziaren ondorioz nago hemen. Haren lan bilakaerak eragingo du egingo dudana ibilbidean.

“**Hasiberri naizen honetan ikusi dut Azoka baino gehiago dela Gerediaga”**

“**Elkarteak bazkideekin duen harremana ere sendotu gura nuke”**

Batzar Orokorrak edo gure bazkideek amesten duten Gerediaga hori zelan bideratu litzateke nire lana. Badago plan estrategiko bat, eta lan ildo horri jarraituko diot, baina nire iritzi eta esperientziatik proposamenak mahaigaineratuko ditut. Eskualdeko ondare material eta inmaterialaren garrantzia aditzera ematea da azken helburua. Jendeari balio hori erakustea.

Jendea jabe da balio horretaz?
Uste dut ondareak baduela halako kutsu akademikoa, formula, zelanbait historiazaleei lotutakoa, eta hori edonori azaltzeko modu berritzaileak, desberdinak lantzea behar dugu. Hori izango da, agian, gure erronketako bat. Balio horretaz jabe? Ez dakit. Uste dut, sarritan ez dela kontuan hartzen norberak bere herrian duena. Kanpora begira jarduten dugu, geurea ondo ezagutu eta horren garrantzia nabarmendu beharrean. Oraindik badago zer erakutsi. Beti ezagutzen da zerbait berria.

Azokak lan hori guztia bigarren maila batean uzten du?

Azokak dimentsio handia dauka, Durangaldetik haratagokoa. Euskal Herriaz gairikoa azoka da, eta trakzio bat. Baliabide asko erabiltzen ditugu horretara, eta gutxiago beste ekintza batzuetara. Baliteke beste ekintza batzuei zelanbaiteko itzala egitea. Hala ere, aldi berean, aurrea ekiteko aukera ere bada Azoka; izan ere, aitzakia horregaz ezagutzen gaituzte. Hori abantaila ere bada beste gauza batzuk antolatzeke edo beste ate batzuk jotzeko.

Azoka da Gerediagak antolatzen dituen ekintzen artean isla gehien duena. Aldaketak behar direla uste duzu?

Denak dauka zer hobetu, edo, hobe esanda, zer egokitu. Irakurleak, entzuleak... kontsumitzailea, oro har, aldatuz doa eta horregaz bat etorri behar da Azoka ere. Oraindik badago gauza desberdinak eskaintzeko aukera. Azoka egiten den egun horietan 190.000 bisitari baino gehiago etortzen da Durangora. Orain arte egin den lana ondo eginda dago, baina badaude beste lan ildo batzuk ere. Adibidez, kontsumitzailea sortzailearengana hurbiltzeko eran edo kontsumitzaile profiletara nola jo ikusteko. Uste dut badaudela aukerak probatzen joateko.

Durangaldeko ondarea zaindu, ikertu eta zabaltzea du helburu Gerediagak. Horretan jartzen da indarra?

Bai, eta lan horretan beste eragile batzuekin elkarlana ere sustatzen du Gerediagak. Zubi-lanak egiten ditu. Horren adibide da oraintsu Berrizko Ormaetxe baserrian egin duten ikerketa zientifikoa. Arkeologian eta etnografian aditua den lan talde batek ikerketa sakona egin du, eta guk zubi-lana egin dugu: diru-laguntza eskatuz, komunikazio eta dibulgazio lana eginez... Maiatzean aurkeztuko da ikerketaren emaitza. Ikerketarako ditugun baliabideak murrizak dira, eta beraz, inguruan interes hori dutenekin ere elkarlana bultzatu gura dugu Gerediaga elkartetik.

Alain Concepción Romero | Abeslaria | Zornotza, 1982



Alain Concepción —eskuinean—, duela bi urte eratu zuen hirukotean lagun dituen Julio Veiga eta Jose Gallardogaz.

“Gure helburu nagusia publikoagaz benetako komunikazioa lortzea da”

Soul abeslaria da Alain Concepción zornotzarra. Bera buru duen hirukoteagaz diskoa grabatuko du

> MUSIKA Itsaso Esteban
Musikari autodidakta eta kantu irakaslea da Alain Concepción. 16 urteagaz hasi zen hainbat taldetan kantatzen, eta, besteak beste, rocka eta heavya jorratu ondoren, soulean eta jazzean murgilduta dabil azken aldian. Hamarkada bat baino gehiago darama zenbait proiektutan. 2011n kalera-
tu zuen bere lehenengo lana, eta ‘R’ diskoa, 2014an.

Alain Concepción & The Soulmen taldean diharduzu azken bi urteetan. Zelan sortu zen? R diskoan nigaz jardun ziren Julio Veiga pianistagaz eta Jose Gallardo saxofonistagaz sortu nuen Alain Concepción & The Soulmen. Horren ostean, zuzeneko emanaldi batzuk eskaintzen hasi ginen, eta orain diskoa grabatzeko ideia sortu zai-
gu. Hirukote formazio bereziko taldea da gurea, ez baita ohikoa baxu-jotzailerik eta bateriarik barik jardutea.

Plateruenean jo zenuten otsai-lean. Zelan joan zen saio hura? Bai, hango Jam Sessionean jo genuen, saioa zabalduz. Oso

sentsazio onak eduki genituen, entzulegoa oso adi nabaritu genuen. Hain justu ere, gure helburu nagusia publikoagaz benetako komunikazioa lortzea da. Plateruenean magia hori lortu genuela sentitu genuen, eta asko poztu ginen.

Maiatzaren 5ean zuzeneko grabazioa egingo duzue, hurrengo diskora begira. Aurretik egin duzue halako zerbait? R diskoa ere zuzenean grabatu genuen, musikari guztiek batera jotzen. Baina maiatzaren 5eko emanaldiaren berezitasuna izango da publikoak estudioan egongo dela gugaz. Guretzat kontzertu bat bezalakoa izango da, eta lan handia egiten gabiltza emanaldi hori prestatzeko. Zerbait berezia egin gura dugu, jotzen gabiltzanean bizi duguna transmititu. Grabazio horretatik aterako ditugu gero diskoaren osagaiak.

Edozein joan ahalko da diskoaren grabazio kontzertu hori entzutera?

Bai. Gure Facebook orrian publikatu dugun helbidera mezu elektronikoko bat bidalita eman

daiteke izena. Crowdfunding estiloko zerbait izango da: izena ematen duenak kontzertu horretarako sarrera jasoko du, eta kaleratzen dugunean diskoa ere bidaliko diogu emandako laguntza eskertzeko. Laguntzen diguten horien guztien izenak agertuko dira diskoan. Datozenez kontzertu hori berezia izatea da gura genukeena, eta kolaborazioak ere izango dira. Diskoa uda osterako kaleratzea gura genuke.

Zer erreperitorio eskainiko duzue maiatzaren 5eko saioan?
Nire kanta berri batzuk eta hainbat bertsiore ere joko ditugu — Marvin Gaye edo Stevie Wonderrenak moduko soul, funk eta blues ukituko kantak.

‘R’ diskoa ezagutzen dutenek zer entzungo dute desberdina disko berri horretan?
R diskoaren germen hori dago kanta berrietan ere, azken finean ni bainago kanten atzean.

Baina egia da ere, ni aldatu egin naizela ordutik: ez naiz duela lau urte disko hura grabatu zuen pertsona bera. Eta aldaketa hori nabaritu da kantetan. Bestalde, Alain Concepción & The Soulmen formazio bereziko taldea da, eta soinu berezia dute kantek. R egiterakoan nire helburua ahalik eta publiko zabalenera zuzentzea zen, eta alde horretatik ere bestelakoa da orain egiten duguna: entzuleari apur bat gehiago eskatzen dio orain egiten dugun musikak.

Zer zentzutan eskatzen dio entzuleari gehiago?

Lehen bezala, orain egiten duguna ere musika melodikoa da, baina entzuleari arreta handiagoa eskatzen dio, zelanbait. R zuzenagoa zen, eta kanta berriak intimoagoak.

Eta letrei dagokienez?

Momentuan bizi dudanari loturikoak dira letrak eta gaiak, R diskoan bezala. Musikagaz eta ahotsagaz bilatzen ditudan sentsazioak osatzen saiatzen naiz letren bitartez. Edozelan ere, musikari eta abeslari gisa ikusten dut gehiago nire burua letrista gisa baino.

**Nola heldu daiteke musikari autodidakta bat estilo haue-
tako profesional izatera?**

Nire kabuz eta inguruan izan ditudan musikariengandik ikasi dut. Uste dut entzumena eta sentimendua direla ezinbesteko osagai bakarrak musika ikasteko. Musikarekiko pasioak eta lanak eramango zaituzte gauza berriak ikastera. Musika lengoia bat da, eta umeek berbetan ikasten dutenean bezala, dakitenei entzutea eta praktikatzeko da ikasketaren gakoa. Musikaren kasuan, jotzea eta adieraztea.



16 urteagaz hasi zen Concepción zornotzarra hainbat musika taldetan abeslari moduan.

> LITERATURA Itsaso Esteban Durangoko Plateruenak euskal literatura jendarteratzea helburu duen Hitzez eta Ahotsez ekimenaren laugarren edizioa amaitzeko jaialdia hartuko du, maiatzaren 5ean. Aurreko hiru urteetan bezala, sei orduko jendurreko irakurraldi batez emango dute ekimena amaitutzat. 18:00etatik gauerdira arte, 250 lagun igoko dira Platerueneko oholtzara literatura erretzatu zein kantatzera.

Bidaia hartu dute aurten gaitzat, eta bidaien inguruko testuak izango dira ardatz irakurraldian

15 eta 85 urte arteko 250 lagun igoko dira maiatzaren 5ean Platerueneko oholtzara

Bidaia izan da laugarren Hitzez eta Ahotsez literaturazaleen ekimenean hartu duten gaia, eta bidaien inguruko testuak izango dira maiatzaren 5eko ekitaldiaren ardatza. Hainbat idazlek argitara emandako poema zein narrazioak irakurriko dituzte parte hartuko duten herritarrek. Karmele Igartuak, Felipe Juaristik, Castillo Suarezek, Kattalin Minerrek, Pako

Literaturak 250 lagun elkartuko ditu Durangoko Plateruenean

Maiatzaren 5ean, 18:00etan hasiko da Hitzez eta Ahotsez irakurraldia



Sei orduz, etenik barik jardungo dira 250 herritar bidaiei buruzko literatur lanak irakurtzen.

Aristik edo Harkaitz Canok idatzitako pasarteak hartuko dituzte ahotan, esaterako. Gainera, beraien lanak ezagutzera emango dituzte izena eman duten hainbat sortzailek.

Talde anitza osatuko dute ekitaldian parte hartzeko izena eman duten herritarrek, bai jatorriari, adinari eta baita ideologiari dagokionez ere. 15 eta 85 urte arteko partaideak izango dira irakurraldian. “Denentzat

Ekimen herritarra da Hitzez eta Ahotsez, eta sei lagun dabilta antolatuntza lanetan

egongo da lekua Platerueneko teitatupe zabalean”, azpimarratu du Hitzez eta Ahotsez antolatzen duen taldeko Marisa Barrena durangarrak.

Durangaldeko herri guztietako irakurleei, Bilbotik, Eibarrik eta Gasteiztik etorritakoak batuko zaizkie, eta aurten, lehenengoz, Arratiako ordezkari bat ere arituko da. Aurreko urteetan bezala, euskara ikasten zein irakasten dabilzan hainbat lagun ere badabilta ekitaldirako irakurketa entseatzan.

Ekimen herritarra da Hitzez eta Ahotsez, eta sei lagunek antolatzen dute. Hainbat norbanakok eta eragile kolaboratzen du seikote horregaz, eta horiei guztiei esker ona adierazi diete antolatzaileek.

Otsailetik, bidaiei buruzko literaturaren inguruko hainbat solasaldi egin dituzte Durangon

Otsailean hasi zuten Hitzez eta Ahotsez ekimenaren laugarren edizioa, eta hainbat idazleren lanak berbagai hartuta beste bi solasaldi dialogiko egin dituzte ordutik hona.

GEURE DURANGALDEA

GARAZI MUGARZA MARKINA
Kaslea



Hautuez eta garenaz

Eman dit zer pentsatua duela gutxi irakurri dudak Kattalin Minerren lehen eleberriak, *No-la heldu naiz ni honaino* [Elkar, 2017]. Ohartu gabe, eguneroko hautu txikien bidez sortu dugu orain eta hemen garena eta honaino heldu gara, balentriaz edo gabe, baina jaso eta utzi dugun guztiarekin eta errazegi hartutako milaka erabaki zenbateginekin.

Ez da behar kontsolamendu merkerik, badakigu erabakitzeak ezin saihestuzko galerak dakartzala eskutik eta gai gara balantzaren teoria azaltzeko: hausnartu behar genukeela hautu bakoitzarekin zer galtzen eta irabazten dugun, eta gero, zama horrekin bizitzen ikasi. Zilegitasun dosi bereko hiru jokabide humano bereiztuko nituzke nik. Bate-tik, abilezia izugarria izatea iheserako; bestetik, etengabe lehengora itzultzeko premia gordina sentitzea; eta azkena eta beharbada idealena, aldiz, bigarren aukera bat izanda, bizi izandako huraxe hautatzea beste behin. Ez omen da posible aukera guztiak eta bat bera ere nahi ez izatearen kontzientzia egoista horrekin ganorazko ezertara iristea, inondik ere. Bale, eta nork bere burua segurtasun-eremuetan mantendu eta baldintza minimoetan irauteak ahalbidetu lezake zorientasuna? Batek jakin. Leire Bilbaoren poema batek hala dio; plazer guztiek egiten dute min.

Erich Fromm psikoanalistaren arabera, gizakiok libre jaiotzen gara baina askatasun horrek sekulako beldurra ematen digu. Hamaika aukera desberdin eskura izanda, jarraitzen dugu pentsatzen mundua ordubetez gelditzeko gai bagina egingo genukeen guztian.



Iaz Durangaldeko idazleen lanak hartu zituzten gaitzat Hitzez eta Ahotsez ekimenean.

Perplejo
II Maquinario Teatro (Galicia)
Apirilaren 29an, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

MAIATZAK 5
18:00etan
HITZETZ ETZ AHOTSEZ
ETENIK GABEKO IRAKURKETA

MAIATZAK 7
13:00etan
JON GURRUTXAGA & KEU AGIRRETZEA
APERITIFA SESSION

MAIATZAK 12
21:30ean
JAM SESSION
JAM SESSION

**MATRIKULAZIO
DATAK**
maiatzaren 2tik,
maiatzaren 12ra

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten

HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7 ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goieta, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



OTXANDIOKO HAURRESKOLA
Mainondo, 7A OTXANDIO
Tel.: 945 450 997
otxandio.otxandio@haurreskolak.eus



ZALDUZUBIETA

ZALDIBARKO HAURRESKOLA
Autonomia, z/g ZALDIBAR
Tel.: 946 824 497
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus



Hainbat emanaldi eskainiko dituzte L'Atelier eskolako ikasleek.



Estilo desberdinetako dantzak eskainiko dituzte, 18:00etan, Landako Gunean.

Dantzaren nazioarteko egunagaz bat egingo dute, bihar, Durangon

L'Atelier dantza eskolak antolatutako ekitaldiak egingo dituzte egun osoan

> DANTZA Itsaso Esteban Zazpigarren urtez ospatuko dute Dantzaren Nazioarteko Eguna, Durangon. L'Atelier dantza eskolak Durangoko Udalaren, San Agustin kulturgunearen eta Turismo bulegoaren babesagaz antolatu du biharko nazioarteko egun horregaz bat egiteko egun osoko egitaraua.

Herriko hainbat gunetan goizetik iluntzera arte egingo dituzten dantzari loturiko ekitaldietan 400 lagunek baino gehiagok

parte hartuko dute. 10:30ean izango da eguneko lehenengo ekitaldia, eta 20:00etan hasiko dute azkena. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, "dantza, festa-giroa eta musika izango dira protagonista nagusiak bihar, Durangon".

Landako Gunean, Sanagustinalden eta Plateruenean egingo dituzte Dantzaren Nazioarteko Eguneko ekitaldiak. Ekitaldirik gehienak Landako Gunean izango dira, eta, hain justu ere, han

400 dantzarik baino gehiagok parte hartuko dute Durangon egingo dituzten emanaldietan

izango da eguneko lehenengo ekintza: umeentzako zirku, dantza, maskara eta makillaje tailerrak egingo dituzte, 10:30ean. Ondoren, 11:30ean, L'Atelier

balletaren saioa izango da, eta Sanagustinalderaino kalejiran joango dira, 13:00etan han ballet barra emanaldia eskaintzeko.

Aurreko urteetan bezala, dantzariak eta beraien senitar-teko eta lagunak bazkaltzera elkartuko dira Plateruenean, eta L'Atelier balletak Grease musikala eskainiko du kafe antzokiko oholtzatik, 16:30ean.

Hasitako lekuan amaituko dute eguna: Landako Gunean, dantza eskolako taldeen estilo desberdinetako emanaldiak izango dira ikusgai, 18:00etan. Ondoren, jaiari amaiera emateko, DJak ipinitako musikagaz hainbat dantza estiloko nor-gehiagoka egingo dute. Break dantza, funkya, jazza eta balleta izango dira ikusgai.

Berrizko Kultur Etxean joko du Ekiza bakarlariak eguaztenean

> MUSIKA I.E.

Berrizko Kultur Etxeko Tren Geltokiko Musikariak zikloa zabalduko du Jurgi Ekiza musikari baionarrak, maiatzaren 3an, 21:00etan. Bere gitarraz, ahotsagaz eta *looper*agaz arituko da Willis Drummond taldeko kidea, duela urtebete abiatu zuen barkarkako proiektua aurkezten.



JURGI
EKIZA

Maiatzean eta azaroan beste bi kontzertu ekarriko ditu Tren Geltokiko Musikariak zikloak Berrizera: Jon Basaguren arituko da maiatzaren 10ean, eta First Breath After Coma 22an. Bestalde, honakoak izango dira azaroko bi emanaldiak: Jardin de la Croix taldeak joko du 4an, eta Aستراليا taldeak itxiko du aurtengo zikloa, 11n.

Santiago Yaniz argazkilariaren paisaiak, Elorri

> ARGAZKIGINTZA I.E.

Maiatzaren 2tik 31ra arte, Elorrioko Iturri kultur etxean Santiago Yaniz argazkilari bilbotarraren *Bizkaia izadi sublimea* izenburuko argazki erakusketa egongo da ikusgai.

1980tik dihardu argazkilari eta kazetari lanetan Yanizek, eta Euskal Herriko paisaien, naturaren eta pertsonen 500.000 iruditik gorako artxi-boa osatu du. Elorri, Bizkaiko lurraldean egindakoak ipiniko ditu ikusgai.

Maiatzaren 2tik 31ra arte, Elorrioko Iturri kultur etxean ikusi ahalko da Yanizen erakusketa

Artefaktu teknikoak saihestuz, natura ikertuz, argiak kudeatuz eta meteorologiak eskaintzen dituen uneak aprobetxatuz egindako argazkiak dira Yanizen *Bizkaia izadi sublimea* erakusketak.

Beste hilabetez egongo dira Picassoren artelanak Durangon

Izan duen harrera onak bultzatu du Museoa erakusketaren epeak luzatzera



Maiatzean beste hiru bisita gidatu eskainiko dituzte 'Picasso: Durangotik Guernicara' erakusketan barneratzeko.

> ARTEA I.E.

Hasiera batean maiatzaren 1era arte egongo zela aurreikusi zuten, baina ekainaren 4ra arte egongo da *Picasso: Durangotik Guernicara* erakusketa Durangoko Arte eta Historia Museon.

Herritarrek erakusketari egin dioten harrera ikusita, erakusketaren epeak luzatzea erabaki dute, aho batez, Durangoko Udalak, Museoak eta bildumazaleek. Izan ere, Arte eta Historia Museoren arduradunek azaldu

dituzte, martxoaren 30ean, Durangoko bonbardaketaren 80. urteurrenaren bezperan, inauguratu zutenetik 1.200 bisita jaso ditu erakusketak. Gainera, bete egin dira eskaini dituzten bisita gidatu guztiak, eta itxa-

ron zerrendak ere sortu dituzte. Museoko arduradunek azaldu dutenez, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean jaso zuen Museoak bisitari kopururik handiena.

Francoren ametsa eta gezurra bildumako grabatuak biltzen ditu erakusketak, *Gernika* obra ezaguna osatu aurretik eta ostean Pablo Picassok sortutako obrak. Gainera, *Gernika* koadroaren hiru fakzimitil, eta Josep Renau Errepublikako gobernuan Arte Ederren arduraduna izan zenak egindako estampa bat ere badaude Durangoko Museon ikusgai.

Bisita gidatu gehiago

Erakusketa bisitatu ahal izateko aukera hilabete baino gehiagoz luzatzeaz gainera, *Picasso: Durangotik Guernicara* erakusketan barneratzeko beste hiru bisita gidatu ere eskaini dituzte, maiatzaren 9an, 16an eta 30ean.

Horrez gainera, ikastetxetatik bisitan doazen taldeekin ekintza bereziak eta 4 eta 11 urte arteko umeentzako tailerrak ere egingo dituzte —maiatzaren 18an eta 23an.

Bestalde, komikigintzaz jardungo dira Unai Iturriaga eta Alex Sanvi, maiatzaren 16an, Museon, eta Rosalinda Incardonaren eskutik grabatu taillerria izango da, maiatzaren 24an.

Xabier Arroitauregi Elguea | Tabirako-Baque taldeko kidea | Berriz, 1997

“Lan ona egiten gabiltzan arren, emaitzek ez digute askorik laguntzen”

Gurasoak gaztetan aritutako taldean dabil jokatzen Xabier Arroitauregi berriztarra

> KIROLA Maialen Zuazubiskar Xabier Arroitauregik odolean darama saskibaloia, txiki-txikitatik dabil kirol honetan. Asteburuan galdu duten arren, Tabirako-Baque taldea ondo dabilela aitortu du taldeko eskoltak.

Nola joan da asteburuko partidua?

Hasieran ondo hasi ginen arren, partiduan askotan galdu genuen baloia, eta hirugarren laurdenean aurkariak saskiratze dezente egin zituzten, eta orduantxe galdu genuen partidua.

Sailkapen nagusian, laugarren postutik seigarrenera jaitsi zarete.

Azken aldian emaitzek ez digute askorik lagundu. Lan ona egiten ari garen arren, ez dugu lortzen partidu askorik irabazterik.

Denboraldia bukatzeko bi partidu baino ez zaizkizue gelditzen. Nola ikusten duzu taldea?

Ondo. Entrenamenduetan lan ona egiten dugu, eta gogotsu gaudela da garrantzitsuena. Denboraldia oso ondo hasi genuen, eta lehen hamar partiduetatik zortzi irabazi genituen eta bi bakarrik galdu. Taldeko inork ez genuen espero sailkapenean horren aurrean egotea. Orain, berriz, bi partidu jarraian irabazi ezinik gabiltza.

Agian taldea nekatuta egongo da?

Ez, gogotsu gabiltza lanean, eta emaitzek askorik laguntzen ez diguten arren entrenamendu onak egiten gabiltza. Orain, falta diren partidu biak irabaztea izango da gure helburua.

Denboraldi hasieran, espero al zenuten sailkapen nagusian aurrean ibiltzea?

Nik banuen ondo ibiliko ginen esperantza. Banuen gogoa final four-a jokatzeke, eta, nola ez, hori etxean izateko. Gainera, iaz kiroldegian nesken igoera faseko partiduan sortu zen giroa ikusita, ilusio berezia



egiten zidan horrelako zerbait kantxa barrutik bizitzea.

Azken bi partiduak irabaziz gero, final four-a jokatzeke aukeraren bat izan dezakezue.

Final four-a postu bakar batera dugun arren, azken bi partiduak irabazi egin beharko ditugu. Gainera, dena ez dago gure esku, eta beste taldeek zer egiten duten ikusi beharko dugu.

“**Giro oso ona dugu Tabirakon, eta lagunak gara taldekide baino gehiago**”

Hala ere, oraindik badut esperantza denboraldia lehen bosten artean bukatzeko.

Aurten Tabirako-Baqueko ezinbesteko jokalaria bihurtu ei zara.

Nik ez dut neure burua ezinbestekotzat jotzen. Uste dut guztion lana dela beharrezkoa, gurea talde lana baita.

Nola zaude taldean?

Taldean oso gustura nago. Giro oso ona daukagu gure artean, eta taldekide baino gehiago, lagunak gara.

Aspalditik zara klub honetako kidea?

Gazte-gaztetatik nabil Tabirakon. San Antonio Santa Ritan hasi nintzen saskibaloian jokatzen, eta hortik Tabirakora igaro nintzen. Orduz geroztik bertan nabil, eta bertan jarraitzea espero dut.

Nola gogoratzen dituzu hasierako urteak?

Urte oso politak izan ziren. Hasieran, San Antonio Santa Ritan nenbilenean talde misto bat genuen, eta lagun artean ondo pasatzeko jokatzen genuen. Hala ere, aitortu behar

“**Gurasoak, biak dira saskibaloian jokatutakoak. Biak Tabirakon, gainera**”

dut beti izan naizela lehiakorra. Txikitari ere amorratu egiten nintzen partidu txar bat jokatzen banuen.

Ondoren, Tabirakora pasatu zinen.

Bai, kadete mailan Tabirakora pasatu nintzen, eta orduz geroztik bertan nabil.

Zure burua Tabirako ez den beste talderen batean ikusten duzu?

Egia esan, etxeko taldean oso gustura nago, eta bertan jarraitzea da nire asmoa. Hala ere, maila altuagoan dagoen talderen batera joateko aukeraren bat banu, ez nuke pentsatu barik ezezkorik emango. Ondo pentsatu eta baloratu beharrezko erabakia izango litzateke.

Familiatik datorkizun afizioa da saskibaloia?

Bai, gurasoak, biak dira saskibaloian jokatutakoak. Biak Tabirakon, gainera. Amak senior mailan utzi behar izan zuen saskibaloia, ikasketak zirela-eta. Aitak, berriz, urte dezente egin zituen senior mailan, lehen taldean.

Beraz, irakasle onak dituzu etxean.

Bai, gurasoek asko lagundu didate, eta aholku bikainak eman dizkidate urte hauetan guztietan. Esaterako, aitak jaurtiketak egiten erakutsi dit. Gurasoen laguntza ezinbestekoa izan da, entrenamenduetan aholku bikainak eman dizkidate eta.

Irakasteaz gain, zure partiduetara joaten dira?

Aita askotan etortzen da partiduetara. Askok gustatzen zaio gu jokatzen ikustea eta gu animatzea. Amak, berriz, aitak baino gehitxoago sufritzen du, eta partidua berdindu samar badago, joan egiten da kantxatik.

Orduan, saskibaloiko aditu bi izanda etxean, egiten al duzue jokaldien baloraziorik partiduak bukatzean?

Noski. Gurean balorazioek beti izaten dute lekua. Egia esan, lehen gehiago izaten ziren. Gazte mailako partiduen ostean, bazkalorduan normalean, partiduko gora-beherez aritzen ginen. Orain, berriz, gutxiagotan egiten dizkidate halako kritika konstruktiboak [barrez]. Baina, badakit “kritikak” beti egongo direla.

Lorpenen eta dominen urtea da Zornotzako igerilarientzat

Espainiako txapelketako lehenengo parte-hartzean sei domina irabazi zituzten



Nekane de la Hera eta Nerea Fernández domina banagaz.

> IGERIKETA J. Derteano Amorebieta-Etxano igeriketa taldean familia handia eta emankorra osatzen dute. Urterik urtera handitzen doan

taldean 142 igerilari dituzte, eta aurretik inoiz heldu bako lorpenak eskuratzen dabilta aurten. Otsailean Mallorcan (Balear Uharteak) jokatu zen Espainia-

ko neguko txapelketan lehenengoz parte hartu zuten, eta sei dominagaz itzuli ziren. Nekane de la Herak bost irabazi zituen, horietako bat urrezkoa. Nerea

Fernandezen brontzeak boroildu zuen Amorebieta-Etxano taldekoen lana. "Hirurak gure taldeko monitore dira gaztetxoekin. Zelako kirol maila eta esperientzia duten ikusita, erakusteko asko dute", dio Mikel Zabala entrenatzaileak.

Uztailean Malagan eta Barzelonan jokatu diren udako Espainiako txapelketarako hiru igerilari sailkatuta dituzte dagoeneko: Natalia Redondo kimua eta haur-kategoriako Saioa Amorrosta eta Araitx Zununegi. Neguko txapelketetan egindako lanaren ondorioz, udakoetarako igerilariak sailkatuta dituzten lehenengo aldia da.

Bizkaiko neguko kopak beste hitzordu garrantzitsu bat izan dira. Banakako txapelketan 47 domina eskuratu zituzten, 17 urrezkoak. Ondoren, taldekoa prestatzeko, Lekeitiora joan ziren federatuta dauden guztiak, eta hiru egunean "entrenamendu gogorak" egin zituzten "prestakuntza muturrera" eramanez. Zornotzan jokatu txapelketan, nesken taldea txapeldun geratu zen.

ADITUAREN TXOKOA

GARAZI SAMPEDRO ARANDO

Mendi lasterketak



Denboraldi hasiera

Mendi proben denboraldi noiztik nora den zehaztea ez da erraza hainbeste lasterketa daudenetik, baina, oro har, negua izaten da mendiko zapatilei atsedean emateko sasoa.

Otsaila jarriko dugu abiapuntu: Kobaz Koba, Apuko, edota BUTS zirkuituaren lehen zatia izan zen Bilbo-Gasteiz. Segidan etorri ziren Zuzenien, Mugagabe, Aia, eta abar. Apirilean Arrasate-Udalatz azpimarratuko nuke, eskualdeko korrikalari ugari hartu baitzuen parte: Oihana Azkorbebeitiak, Aitor Ajuriak, Markel Zamakona eta Ekaitz Kortazarrek itzelezko ikuskizuna eskaini ziguten bertaratu ginen zaleoi. Otxandiarrek indartsu daudela erakutsi zuten. Oihana, aldiz, asteak daramatza gailentzen: Zestoa, Zaramillo, Aia, Xoxote, Arrasate eta Sarako 6 txapelei Oñatin lortu berri duen 2. postua gehitu behar zaie. Zoragarria bere denboraldi hasiera!

Abadiñoko beste neska batek ere erakustaldi bikaina eman zigun Bilbotik Gasteizera 110 kilometroko lasterketa irabaziz: Silvia Triguerosen 17 ordu pasa egin zituen hiriburua batetik bestera.

Eskualdeko lasterkarien artean, Oier Ariznabarreta eta Julen Ozaeta durangarrak ezin aipatu gabe utzi. Lehenak Bobian, Saran eta Beran irabazi zuen. Julen, aldiz, Europako mendietan aritu da sasoi betean: Cangasen irabazi, eta Cabralesen 3. postua eskuratu zuen. Bedian ere jantzi zuen txapela. Hemendik aurrera lasterketa pilo dagoz, eta maiatzeko azken asteburuko zita izango da izarra: Zegaman ikusiko dugu elkar!



Durangaldeko txirrindulari eskolako gazteak izango dira protagonistetako batzuk.

200 ziklista gazte batuko ditu Bizikleta Egunak

> TXIRRINDULARITZA J. D. Domeka honetan Bizikleta Eguna antolatuko dute Durangon. Bizkaiko taldeetako gazterik gehienak batuko ditu, 200 bat guztira. Aurretik, 10:30ean, txirrindularitzarako zaletasuna sustatzea helburu duen laskerketa herrikoia antolatu

dute. Ezkurdin hasiko da, eta 6-14 urte artekoek zuzenduta dago. 10 urtera artekoek itzuli bi emango dizkiote 1,3 kilometroko zirkuituari, eta nagusienek lau. Izen-ematea doakoa da eta egunean bertan egin daiteke, 09:30ean hasita. Edozein mota-tako bizikleta eraman daiteke.

Leanizbarrutia izenagaz martxa berria Elorrion

Maiatzaren 1ean Elorrion antolatuko dute

> TXIRRINDULARITZA J.D. Elorrio Txirrindulari Elkarrekin errepideko martxa zikloturista bat antolatuko du, lehenengoz, astelehenean. 'Alberto Leanizbarrutia Martxa' izena jarri diote. "Profesionaletan ibilbide luzea izan zuen, eta oso pertsona estimatua da herrian", azaldu du elkarteko kide Txema Mirenak.

Leanizbarrutia (Elorrio, 1963) 13 urtez izan zen profesionala, hainbat taldetan. Luxuzko laguntzailea izan zen, eta garaietan batzuk ere lortu zituen.

Asteleheneko martxa 08:30ean hasiko da, Elorrioko

plazatik. Leanizbarrutia bera irteera puntuan egongo da martxari hasiera emateko. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke. Federatuentzat 15 euro da, eta federatu gabeentzat 25. Izena eman dutenen artean hainbat opari zotz egingo dituzte bukaran, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

la ehun kilometro Martxa berriak 96 kilometro izango ditu. Hasi eta berehala Urkiola igoko dute. Angiozar gainetik ere igaroko dira azken txanpan, Elorrion helmugaratu aurretik.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com



GREMIOEN GIDA



ITURGINTZA

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

UNAI GARAY

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



ZURGINTZA

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

ATERPE ARBOTZAK

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Sorrerako entrenatzaileekin hasiko dute 'Errugbi Saltsa'

DRTk hitzaldi-solasaldi zikloa antolatu du 30 urteko bidea gogoratzeko



Urteurreneko jai nagusia maiatzaren 27an izango da.

> ERRUGBIA J. Derteano Durango Rugby Taldea 30. urteurrena ospatzeko menua prestatzen dabil. Maiatzaren 27a izango da plater nagusia. Birtartean, menuari laguntzeko saltsa zapoetsua dastatzeko aukera egongo da. Datozen bost barikuatarako, bost hitzaldi-solasaldi antolatu dituzte 'Errugbi Saltsa' izeneko zikloan.

Hitzaldiak Durangoko Rugby tabernan izango dira, 21:00etan.

Zurruntasuna baztertuta, formatu ireki eta dinamiko baten aldeko apustua egin dutela adierazi du Jose Ignacio Azurmendi 'Txusmen'-ek. Galdera batzuen ostean, bertaratzen diren denen arteko tertulia bihurtu gura dute hitzaldia. Istorio eta anekdotak gogoratu, 30 urtez egindako bidearen garrantzia nabarmentzeko eta gaur egunera ekartzeko modua izango da. Durango Rugby taldearen

historian, sorreratik gaur egunera arte esanguratsuak izan diren entrenatzaileak izango dira hizlari nagusiak. Gizon eta emakumezko taldeen sorrerako entrenatzaileak gonbidatu dituzte aurreneko solasaldi bietarako. DRTren garapenean eragin sakona izan duten etxeko lagunekin zein kanpotik etorritakoekin jarraituko dute, eta azken hitzaldia gaur egungo entrenatzaileek emango dute.

HITZALDIEN ORDUTEGIA

GIZONEN TALDEKO HASIERAKO ENTRENATZAILEAK

Noiz: maiatzak 28, 21:00.

Non: Rugby tabernan.

Gonbidatuak:

Anton Mendizabal, Eduardo Fidalgo, Goretti Etxegibel eta Jose Ignacio Azurmendi.

EMAKUMEEN TALDEKO HASIERAKO ENTRENATZAILEAK

Noiz: maiatzak 5, 21:00.

Non: Rugby tabernan.

Gonbidatuak:

Jokin Azpitarte Iñigo Barrenetxea, Virginia Sagarduy eta Iñaki Laskurain.

KANPOTIK ETORRITAKOAK

Noiz: maiatzak 12, 21:00.

Non: Rugby tabernan.

Gonbidatuak:

Iñaki Perez 'Ortzi', Peio Urkidi, Conchi Ramos eta Aratz Gallastegi.

ETXEKOAK

Noiz: maiatzak 19, 21:00.0

Non: Rugby tabernan.

Gonbidatuak:

J.J. Milikua, Gotzon Gomez eta Ines Etxegibel.

ORANGOAK

Noiz: maiatzak 26, 21:00.

Non: Rugby tabernan.

Gonbidatuak:

Oscar Astarloa, Kemen Goitiandia, Ricardo Acosta, Egoitz Uranga, Gorka Garate, Jon Goirigolzarri eta Mario Martin.

AGENDA

> FOLA

OHOREZKO MAILA (gizonak)

Iurretako - Gallarta

· Domekan, 17:00etan, Larrakozelaian.

Zaldia - Elorrio

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

MAILA GORENA (gizonak)

Abadiño - San Ignacio

· Zapatuan, 16:00etan, Astolan.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

Zaldia B - Iraulza

· Barikuan, 20:15ean, Solobarrian.

> ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA (gizonak)

Elorrioko Buskantza B - Eskoriatza

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroledegian.

Mallabia Seguros Altaldi - Etxebarri

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroledegian.

MAILA GORENA (gizonak)

Abadiñoako Gaztetxe - Lagun Onak B

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroledegian.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Sasikoa - Enkarterri Neskak

· Domekan, 12:00etan, Tabiran.

Elorrioko Buskantza - Leioa

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko udal kiroledegian.

> SASKIBALOIA

EUSKADIKO LEHEN MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué - San Cernin

· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroledegian.

EUSKADIKO BIGARREN MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué - Irun

· Zapatuan, 17:00etan, merkatu plazan.

> PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- P.Etxeberria-Mariekurrena / Espinal-Sanchez

- Anso-Irurita / Alberdi-Garmendia

· Eguena, 21:15, Mallabian.

SAN PRUDENTZIO TORNEOA (finalak)

Kadeteak:

- Larrazabal - Uranga / Atutxa Lazkano

Nagusiak lau 1/erdian:

- Mendia-Aurtenetxe

Emakume Master Cup finaleko errebantxa:

- Arozena-Mendizabal / Arrizabalaga-Etxaniz

· Astelehenean, 17:00etan, Traña-Matienako frontoian.

Mallabia herri arteko txapelketara itzuli da

Iurretaren kontra jokatu du lehen kanporaketa



Mallabiko kadete eta gazteen bikoteak eguazteneko entrenamendu saioan.

> PILOTA J. D.

Asteburuan Bizkaiko Herri Arteko Pilota txapelketa hasiko dute. Aurtengo 48. aldiaren nobedadeetako bat Mallabiaren itzulera da. Horrela, Durangaldeak sei herri izango ditu lehian: Elorrio, Mallabia, Abadiño, Iurretak, Atxondo eta Zornotza. Partaide kopuru osoaren (24) laurdena osatzen dute.

Zornotza ez beste herriek asteburuan hasiko dituzte kanporaketak. Durangaldeari begira, Mallabiak eta Iurretak elkarren

kontra jokatu duen kanporaketa da erakargarriena. Gaur, 19:30ean, joaneko partiduak jokatu dituzte Mallabian. "Kadeteetako pilotari biek eta gazteetako batek lehenengoz jokatu dute herriartekoa", dio Xabat Uzuriaga herriko pilota elkarte-kideak.

Elorrio-Portugalete, Orozko-Abadiño eta Usansolo-Atxondo dira beste kanporaketak. Zaratamo-Bilbao kanporaketaren arteko irabazlearen zain dago Zornotza.

Eiser-Hirumetek "aurpegia" emanez hasi du denboraldia

> TXIRRINDULARITZA J.D.

"Aurpegia ematea, ausardiaz lehiatzea eta nortasuna erakustea". Horiexek dira Euser-Hirumet taldearen aurtengo helburuak, Pablo Mas prestatzaile fisikoaren esanetan. Segovian eta Leonen lehiatzeko heldu zaizkien gonbidapenak lehiatzeko modu horren ondorioak direla esan zuen, joan zen astean, Durangoko San Agustín kulturgunean egindako aurkezpenean. Lasterketaren bat irabaztea ere ez dute baztertzen: "Anbizio handiko helburua da, baina egingarria." Hamasei txirrindulari dituzte. Euskaldun Torneoko liderra harrobikoa da: Alain Ramirez. Bestealde-La Tostadora taldean hainbat urte eman ditu.

Aurten nazioarteko hainbat lasterketa lehiatuko dituzte, Espainiako Kopa alboratuta. Nazioartean lehiatzea lehenestea erabaki dute.

Vulcanoko entrenatzaile ohia, haserre federazioagaz

> FUTBOLA J.D.

Otxandioko Vulcano taldearen futbol partidu bat bertan behe geratu zen orain hile batzuk, Vulcanoko entrenatzailearen eta talde bisitariko jokalariren arteko liskar baten ostean. Ondorioz, Arabako federazioak zuhurtasuneko zigorra ezarri zien biei. Entrenatzaileak jarritako salaketa ez da epaiketara heldu. Adiskidetasuneko aitortpen batez konpondu dute. "Jokalariak onartu du eraso egin zidala", dio Jose Damian Enriquez Vulcanoko entrenatzaile ohiak. Dokumentu horregaz federazioa joan da zuhurtasuneko zigorra kendu eta zigorrak erabaki ditzaten. Berari zazpi partiduko zigorra jarri dio federazioak, eta jokalaritari zortzikoa. Erabakiagaz "umiliatua" sentitzen da. Ezin du ulertu zelan jarri dieten ia zigor berdina, alde batek bere errua onartu duenean.



JATETXE GIDA

ÑAM!**KOBIKA JATETXEA**

San Ignazio, 8 DURANGO

Tel.: 946 810 003Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.**ÑAM!****OLAJAUREGI JATETXEA**

Kurutzia Kalea, 52 DURANGO

Tel.: 946 200 864Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak
eta ospakizunak. Egunero zabalik.
www.olajauregi-jatetxea.com**ÑAM!****KANBIO JATETXEA**San Migel Dueda auzoa
AMOREBIETA-ETXANO**Tel.: 946 730 033**Aste bitarteko menua, asteburuko menua,
menu berezia eta karta.**ÑAM!****PLATERUENA Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4 DURANGO

Tel.: 946 030 300Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
www.plateruena.eus**ÑAM!****IBARRA
SAGARDOTEGI-GARAGARDOTEGIA**

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA

www.ibarra-sagardotegi.com**Tel.: 946 731 100**20. urteurrena. Orain garagardotegia eta sagardotegia;
menu ezberdinak. Gure upategian egindako sagardoa.
Astean zehar soilik erreserbentzako zabaltzen da.**Anbotoren lagunak**Ibarra Sagardotegi-Garagardotegiaren eskutik
bi pertsonentzako menua zozkatuko dugu Anbotoren
Lagunen artean.Hile honetako irabazlea: **Oihana Etxanojauregi Korpion!****ZORTE
ON!**

Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

%



A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > -%20 ideien proiektuan.



BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreraren deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburuetako menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- > -% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- > -%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
- > -%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.



OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.



UR URDAIBAI

- > -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

> ZORION AGURRAK✉ zorionak@anboto.org
eguzteteneko 14:00ak arteko epea

> Zorionak, **Inge!** Etxeko printzesak 5 urte ein dauz. Muxu pilla bat etxekuen partez!



> Apirilaren 19an **Amaiak** 10 urte egin ebazan. Mosu potoluek emon geuntzezan Iurretan.



> Zorionak, **Laia!** Gaur urtetxo bat! Egun ederra pasau! Muxu erraldoi bat etxekuen partez!



> Ezinezkoa dena momentuan egiten duzu. Zorionak Matienatik, mosu handi bat eta ondo pasa zure egunean.



> Zorionak, **Izaro!** Mosu handi bat etxekon partez zure 5. urtebetetzeagatik.



> Zorionak, guapa, ondo pasa zure eguna eta zure desioak bete daitezela.



> **Aratzek** 6 urte bete zituen. Zorionak aitaren, amaren eta Haizearen partez.



> Zorionak, **Gontzal**, Durangoko familiaren partez. Jarraitu horrela, jator eta alai. Ondo pasa zure eguna!



> Zorionak, **Irafi**; aita, Lander, ama Ana, Endika, Luzia, aitteitte Karlos eta amama Enkarnaren partez.



> Jendetza bildu ginen zapatuan Gerediagan. Mila esker guztioi!



> Atzo **Ikerrek** 6 urte bete zituen. Zorionak Haizea, Aratz eta Unairen partez.



> Gure **Jontxuk**, Iurretakoko portorerik onenak 16 urte ein ebazan. Musu potoluek berentzako.

> BOTIKAK**BARIKUA, 28** · 09:00-09:00

De Diego Intxaurren 22. - Durango

Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - Zornotza**ZAPATUA, 29** · 09:00-09:00**Balenciaga** Ezkurdi plaza 8 - Durango**Sarasketa, Diego** Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango

De Diego Intxaurren 22. - Durango

Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango**Campillo** Montevideo etorb. 24 - Durango**Bazan Diaz** Urribarri 5 - Durango**Navarro** Artekalea 6 - Durango**Sagastizabal** Askatasun etorb. 19 - Durango**Eguren, Isabel** Trañabarren 15 - Abadiño**Bartolome** Gabiola 2 - Berriz**Jaio-Olabarrieta** Errekakale 6 - Elorrio**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - Zornotza**Melero, Rosa Mari** San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

Irigoi Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**DOMEKA, 30** · 09:00-09:00**Gaztelumendi** J.A. Abasolo 2 - Durango**Sarasketa, Diego** Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 1** · 09:00-09:00**Etxebarria** Montevideo etorb. 2 - Durango**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 2** · 09:00-09:00**Unamunzaga** Muruetatorre 2C - Durango**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego** Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 3** · 09:00-09:00**Bazan Diaz** Urribarri 5 - Durango**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Bazan Diaz** Urribarri 5 - Durango**Sarasketa, Diego** Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 4** · 09:00-09:00**Mugica** Andra Maria 9 - Durango**Iruarrizaga, Karmele** San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego** Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza

> Zorionak, **Oier**, zure 2. urtebetetzean. Mosu handi bat aiteite Valentin, amama Maria Carmen eta gurasoen partez.



> Apirilaren 29an 2 urte egingo ditu gure mutil haundixak. Zorionak familia guztian partez!



Ermodo, 11 · DURANGO

Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Ane (672. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Albisteak eta agenda,
bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena:
zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez,
erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure
herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !



anbotto.org
MUGIKORREAN

**MIREN RODRIGUEZ****Plater prestatuak eta gehigarriak**

Gehigarrien artean, kontserbagarriak dira gehien erabiltzen direnak, besteak beste azido benzoikoa (E-210etik E-213ra) edo sodio benzoatoa (E-211). Kontserbagarri horiek atzeratu edo galarazi egiten dute mikroorganismoek elikagaietan eragiten duten kaltea. Herdoilaren aurkakoak ere izaten dituzte, batzuk oso ohikoak, adibidez, azido askorbikoa eta haren gatzak (E-300dik E-304ra), tokoferolak (E-307tik E-309ra) edo azido zitrikoa (E-330a); horiek guztiek eragotzi egiten dute elikagai horiek herdoiltzea, bai testuraz eta bai kolorez. Gehigarri horiei esker, elikagaiak ez dira zaharmentzen.

Ongi erabilia, gehigarriek lagundu egiten dute produktuaren kalitatea eta segurtasuna, baina horietako batzuk saihestu egin behar ditugu, adibidez sodio glutamatoa (zapare-indartzaile bat da), zeina oso maiz erabiltzen den aurrez prestatuta dauden plateretan eta janari lasterraren industrian. Gehigarri horrek areagotu egiten du sindrome metabolikoa izateko arriskua, hau da, bihotz-hodietako arriskua areagotzen duen faktore multzo bat izatekoa: arteria hipertentsioa eta sabelaldeko gizentasuna, adibidez. Adi egon behar dugu, halaber, ea badaramaten produktuaren egiazko kalitatea mozorrotzen duten gehigarriak, adibidez loditzaileak (gari irina, arto edo patata fekula...) edo koloratzaileak, horiek ere itxuraldatu egin baitezakete elikagai mota honen egiazko balioa. Latan datozenek gehigarri gutxiago izaten dute gehienean (badira "gehigarririk gabeak" ere), horiei ematen dieten prozesu termikoari esker hobeto kontserbatzen baitira, eta urritu egiten da mikrobio bidez kutsatzeko arriskua.

“Jai Batzordekoek eskatuta animatu ginen, auzoarengatik”

Ezkongaiak izango dira apirilaren 30ean Oromiño auzoan ospatuko duten Euskal Ezkontzan

> AKUILUA Aitziber Basauri
Juan Badiola Zabala tratulari-mutila (Jon) eta Lucia Aldekoa-Otalora Etxaniz (Itsasne) ezkontuko dira domekan Oromiñon egingo duten Euskal Ezkontzan. 1902. urtera egingo dute atzera, egun batez bada ere. Ehun lagunetik gora batuko dituen jarraigoa 12:00etan irtengo da.

Urduri zaudete?
Itsasne Aldekoa-Otalora: Apur bat, bai.
Jon Badiola: Emozioagaz, urduri baino gehiago.

Dena duzue prest? Era berezian prestatu zarete?
I.A.O.: Gutxi gorabehera, bai, arroparen batzuk faltan.
J.B.: Egia esan, protagonistak garen arren, antzezpenean gure parte-hartzea ez da oso aktiboa. Notarioak askoz gehiago du prestatzeko.

Nola ospatuko dute eztei eguna Luciak eta Juanek?
J. B.: Oromiñotik kalejiran irtengo gara, 12:00etan. San Mar korainoko bidea egingo dugu. Idiek tiratuko duten gurdiagaz joango gara, familiakoekin, herritarrekin, dantzariekin... trikitilariak alaituko dute kalejira. Guztira, 150 bat lagun batuko gara: 120 bat nagusi eta umeak beste 30. Dantzarien ostean bazkaria izango dugu.
I.A.O.: Hala ere, ez dira denak joango jarraigoan. Nagusienek San Markon itxarongo digute. Kilometro eta erdi inguru egingo dugu jarraigoan, eta noizean behin tiroa botako dute eskopetaz, ospakizuna dela-eta.

Nola animatu zineten Euskal Ezkontzan parte hartzea?
I.A.O.: Jai Batzordekoek eskatuta animatu nintzen, auzoarengatik. Oso lotsatia naiz, eta berez ez zitzaidan aterako.
J. B.: Berdin. Ez dut uste inor norbere ekimenez animatzen denik. Bigarren plano batean gusturago sentitzen zara. Baina behin eskatuta... (barrez)

Lucia eta Juan ezkontuko dira. Itsasne eta Jon prest daude halako pausoa emateko?
I.A.O.: Ez. Justo Alberdik esan zidan —Tomás de Areito notarioa izango da bera— ezkondu gura banuen bidea ipiniko zuela: ezkontza-hitzarmena irakurriko zuela eta zinegotzi bat ekarrita egingo genuela dena. Baina, ez, ez!
J. B.: Oraingo ez! (barrez).

2002an hasita, bost urterik behin ospatzen duzue Euskal Ezkontza. Aurretik parte hartu izan duzue?
J.B.: Bai. Azkenengoan dantzaz egin nuen, eta aurreko bietan herritar lez.
I.A.O.: Aurten lehenengoz hartuko dut parte Oromiñon. Iaz Abadiñon egin zen Euskal Ezkontzan parte hartu nuen, herritar moduan.

Nola bizi duzue Euskal Ezkontza Oromiñon?
J.B.: San Marko jaietarako egitarau berdintsua



izaten dugu urtero, baina Euskal Ezkontza egokitzen denean, hori erdian jartzen da. Denon parte-hartze handiagoa eskatzen du. Gainera, aurretik batu behar dira gurdarako apaingarriak ere. Gertakari bat da Oromiñorako behintzat. Desberdina da eguna, oso parte-hartzailea. Pertsonaia asko daude, eta jendea behar da. Jantzkerak, giroa... egun berezia da.
I.A.O.: Gaur egun auzoan ez gara hainbeste. Batean eta bestean bizi dira asko. Baina egun horretan horiek guztiak etortzen dira. Aurten, Etxanotik 24 lagun datoz, autobusean.

Ezkongaiak zarete protagonistak, baina hainbat dira pertsonaiak.
J.B.: Bai. Ezkongaien gurasoak, notarioa eta haren emaztea, Ameriketako tio, medikua eta maistra ere badoaz jarraigoan. Aurten, aiti eta amama ez dira egongo.
I.A.O.: Oromiñoko baserri bateko ezkontza-hitzarmen originalak erabiliko dira ezkontzarako. 1902ko apirilaren 3koak dira (Justo aritu da hori moldatzen).

Dotea lotuko zenuten...
I.A.O.: 1.040 dukat, 12 ardi, txakurra, astoa eta nire mailari egokitutako jantziak jarriko ditu Luciak.
J.B.: Baserrian dauden hiruhiru behi, lau gela, lau ohe, arto anegak, nekazaritzako tresnak, garia jotzeko tresnak eta lurra, Juanek.

LAUHORTZA

ARITZ MALDONADO ZABALA
 Behargina



(((LARRUGORRITZEA)))

Asko entzun da egunotan Record Store Day-ko biniloez. Gure belaunaldian, baina, K7rekin murgildu ginen musikan. Eskolako atsedendaldietan, ikasgelan geratzen ginen zintak behin eta berriz entzuten (ze frikiak gu!). Gure eskuetan erortzen zen edozer entzuten genuen: Etsaiak, Fear Factory, Nailbomb...

Xabierrek anaia punkiaren kasete bat ekarri zuen behin: Corazon Del Saporen Fuego al cielo de los cuervos.

Flipatu egin (ge)nuen. Baita ikasi ere. Zenbat lan poesiaz jantzitako hitzak ulertzeko (zenbat galdera buruan, eta gu internetik gabel!). Dotore asko erakutsi zidaten non-zer-nor ziren Srebrenica, 1984, Ynestrillas aita-semeak, Kristal Hautsien Gaua, Celia Cruz... ez nekien aragoiera existitzen zenik ere!

Eta flipatu egin nuen martxoan, 17 urteko etenaren ostean, kontzertu sorta eskainiko dutela irakurtzean; irabazi ekonomikoak Zaragozako Ongi Etorri Errefuxiatuak-entzat izango dira, gainera. Salbuespena diru-gosea darien itzulerak bogan dauden garaiotan.

Emoziotik idatzi ditut lerrook. Apoen bihotzak legez, nireak ere taupaka egiten duelako. Ez dut gustuko efemeridez efemeride jautzi ibiltzea nostalgiaren morroi legez; urteen buruan, baina, sarrerak lortzeko Unaik bi orduko ilara egin zuela gogoratuko dut; oroituko ditut Putzuzulon jautziko diren oihu eta saltoak. Eta barre egingo dut.

Belaunaldi galdua garela diote, ametsik ez dugula, existitzera mugatzen garela.

Nik hegan egin nahi nuen, baina orain negarrez nabil txoko honetatik. Halere, ez naiz egote hutsarekin konformatuko, emankizuna noiz bukatuko zain. Zer egin diguzue?



maristak
Ikastetxea - Durango

946810058
www.maristak.com

etorkizun oso bat
www.maristak.com

Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza

Aurrematrikulak
Batxilergoa
Maiatzak 2tik 12ra
Lanbide Heziketa
Ekainaren hasieran



ATE IREKIAK
Zikloak eta Batxilergoak
Maiatzak 17 abuztuaren
3100-2000



ETORKIZUN OSO BAT



Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!





